



Motor orroen atzerakontua

Sakana Motorsportek antolatutako VI. Olaztiko Rallysprinta martxoaren 29an jokatu da. Javier Goikoetxea asfaltoan mustuko da pilotu gisa / 18-19

Joseba Ezkurdia eta Beñat Rezusta Binakako finalerako prest, gogotsu eta ilusionatuta daude / 2-4

Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatuko duen bide sareko lanak hasi dira / 8-9

Lanbide Heziketan Administrazio Kudeaketa erdi mailako zikloa euskaraz eskainiko da / 6

Juan Luis Larrazak Luis Lizarragan oinarritutako bere bigarren eleberria aurkeztuko du / 22-23

SINADURAK



JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 5



OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA / 5



XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU / 10



IRATI ELZAGIRRE SAGASTIBELZA / 23

Maidar Betelu ARBIZU

Binakako Pilota Txapelketako finalean egotea merezi duen bikoterik badago, Joseba Ezkurdiak eta Beñat Rezustak osatzen dutena da. Txapelketa ikaragarria eginda iritsi dira finalera: hasierako ligaxkako lider, eta finalerdietako hiru partidak irabazita. Martxoaren 30ean leporaino beteta egongo den Nafarroa Arenan aurkari gogorak izango dituzte: Iñaki Artola eta Jon Mariezkurrena. Hain zuzen ere finalerdietan euren kontra jokatu zuten partida Binakako gogorenetakoa izan zen. Hortaz, final ikusgarria espero du katedrak. **Txapelketa hasieran nork esango zizun Arbizuko elkartean egongo zirela finalaren aurreko elkarriketak egiten?**

Bagenekien zaila izango zela, baina lortu dugu. Hemen egoteko eta bizipen hauek bizitzeko ilusio handia genuen, eta ikaragarri pozik gaude.

Hasierako helburua play-offetara sailkatzea zen. Zein momentutan konturatu zineten helburu handiagoak jarri behar zenituztela?

Hasieran ongi lehiatzea nahi genuen, maila ona ematea. Ba-

"Azkeneko urtea gogorra izan da. Banuen burua ateratzeko gogoa"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Ezkurdiak eta Rezustak Binakako Txapelketako finala jokatuko dute Artolaren eta Mariezkurrenaren kontra. "Ikaragarri pozik eta txapela borrokatzeko prest" dago Ezkurdia

genekien hori lortuz gero goian egoteko aukerak izango genituela. Lehen buelta oso ona egin genuen, eta hor ikusi genuen partidaz partida joan behar gi-

nela, ligaxkako sailkapeneko lehen bi postuengatik borrokatzeko.

Txapelketako azken edizioei erreparatuta, aurtengoa final ezberdi-

na izango da. Zer gertatu da finalerdietan Altuna edo Zabaleta bezalako faboritoak ez egoteko?

Final ezberdina da, bai. Baikitik bi pilotari berri daude finalean,

Artola eta Mariezkurrena, eta Rezustak eta biok urte batzuk generamatzan Binakako finala jokatu gabe. Guk gure buruan konfiantza genuen; udan elkarrekin jokatu genituen zenbait torneo, eta ongi aritu ginen, maila onean. Biok elkarrekin jokatzeke ilusioa genuen, eta horrek asko balio du. Bestalde, uste dut Jose Javier Zabaletak play-offetan zorte txarra izan zuela, eskuak izorratu zituelako. Altuna play-offetan sartzearekin egon zen, partida erabakigarrian enpresak beste aldaketa bat egin zuen... faktore eta xehetasun asko daude. Dena den, uste dut polita dela aurpegi berriak egotea, eta final berri bat izatea.

Apirilean 34 urte beteko dituzu eta Rezustak 32 urte dauzka. Gazteak zarete, baina beteteranoen titulua jarri dizuete. Pilotazale askoren artean nolabaiteko poztasun bat dago beteteranoak finalera iritsi zaretelako.

Uste dut gehienbat dela Beñatek lauzpabost urte daramatzalako final bat jokatu gabe, eta nik Binakakoan beste lau urte inguru. Biok elkarrekin finala jokatzeak ilusioa piztu du gure on-



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

EMAN IZENA!



Beñat Rezusta eta Joseba Ezkurdia txapelketan erakusten ari diren maila ikaragarria da. Ligaxkako lider eta hiru partidak irabazita iritsi dira finalera.

doko jendearengan eta gugan. Txapelketa hasieran jarri ziguten beterano fama hori. Duela urte batzuk esaten zen 30-34 urteak zirela pilotara jokatzeko hobereenak, eta orain beteranoak gara-gara esaten dute, baina fisikoki ongi gaude, ilusioarekin. Uste dut borrokatzeko gaudela.

Zergatik egiten dizu aparteko ilusioa finala Beñatekin jokatzeko?

Ezagutu ginenetik harreman ona egin genuen. Oso ongi ulertu izan gara beti, bai kantxan, eta kantxatik kanpo baita ere. Oso gustura jokatzeko dugu elkarrekin. **Izaera kontua izan daiteke? Antzekoak zarete.**

Bai, ixilak konfiantza ez dagoenean, eta konfiantza hartzen denean soltura gehiago. Bai, antzekoak gara uste dut, eta horrek, agian, batu gaitu. Biak urte asko daramatzagu profesionaletan, baina sekula ez genuen elkarrekin txapelketa ofizialik jokatu. Azken urteetan beti esaten nuen ilusioa egingo zidala pilota bukatu aurretik Beñatekin jokatzeko, eta ikaragarri pozik nago, aurreneko aldiz elkarrekin jokatzeko eta finalera heltzeko gauza handia delako.

Txapelketan erakusten ari zareten maila ikaragarria da. Topera hasi, eta oso ongi bukatzen dituzue partidak.

Gustura gabiltza. Beñat fisikoki oso ongi dago, eta ni ere oso ongi ikusten naiz. Ez dugu beldurrik

partidak luzatzeko, gogortzeko eta erritmoa jartzeko. Gure buruan konfiantza dugu, eta ongi bukatzen ditugu partidak. Partida hasierak oso garrantzitsuak dira guretzako, partida erabakigarrietan are gehiago, eta oraingoz hasiera onak egiten ari gara. Ea finalean hala segitzen dugun.

Beñat Rezusta defini ezazu.

Pilotari eta pertsona zuzena, oso langilea. Gauzak oso ongi egiten dituen, xehetasunak zaintzea gustatzen zaiona, beti laguntzeko prest. Pertsona ona. Beti bere tokian, hitz txarrik ez, eta beti animatzeko eta laguntzeko prest. Lankide eta lagun oso ona da.

Jokoari begiratuta, babes handia duzu. Rezusta arroka sendoa da.

Beñat egiten ari den txapelketa pasada bat da. Ematen du debekatuta duela pilota bat huts egitea, dena onera eramaten du, Sekulako defentsa du, frontoia asko kubritzen du... Gozamen da berarekin jokatzeko. Atze horretan pareta bat bezala da, dena ematen du bueltan.

Zuek izan zarete kanpaina honetan Aspe enpresa salbatu duzuenak.

Oraingo honetan horrela tokatu da, baina xehetasunak dira. Aurretik guri tokatu zaigu enpresa defendatzea, eta horretan gaude. **Martxoak 30, Nafarroa Arena beteta eta sekulako giroa. Arerioak, Iñaki Artola eta Jon Mariezkurrena. Finalerdietan euren kontra jokatu zenuen partida Binakako partida-**

rik gogorrena izan zen. Finalean ere halakoa espero duzue?

Bai, finalerdietako bidea hartuko du finalak. Partida oso-oso gogorra espero dugu, zaila. Frontoia gogorra da baita ere, asko aldatzen da Labritetik Nafarroa Arenara. Gurea egiten badugu, borrokatuko dugu, lehiatzeko gaudelako. Gure helburua partida gogorra egitea da, partida ona jokatzeko, txapelaren bila joateko. Gertu bagaude, seinale ona, eta beraiek irabazten badute, behintzat guk lana ongi egingo izan dadila, guri irabaztea asko kostatu dadila.

Finalerdietan eta ligaxkan beraiei irabazi izanak konfiantza ematen dizue edo beraiekin ez zarete fio?

Ez gara fio, finala partida ezberdina delako, dena aldatzen da. Eszenatokiak berak, 3.000 pertsona... horrek eragiten du, berezia da, eta nerbio puntu berezia sortzen du. Finalean dena ezberdina da: txapela dago jokoan, eta horrek tentsioa sortzen du. Txapelak lortzeko aukera asko ez dira izaten, eta behin hor zaudela, lan ona egin eta txapela irabazi nahi duzu. Ea guztion laguntzarekin txapela etxera ekartzen dugun.

Aurrekoan Artola-Mariezkurrena jokoan atzean kargatzera atera ziren, Rezusta lehertzera. Zure kezkarik handiena, jokoan nola sartu.

Bai, baina Beñatekin sekulako konfiantza daukat. Alde horre-

tatik ez dago beldurrik. Gu gure jokoan egiten saiatuko gara, partida mugitzen eta erritmoa jartzen, beraiek eroso egon ez daitezten. Potentzial handiko bikotea da, eta atzean asko kargatzen dute. Beraiei aurre egitea zaila da, gauzak oso ondo egin beharra dago. Ongi defendatu, eta beraiek mugiarazi. Erritmo handiko partida hasierak gustatzen zaizkigu, indartsu hastea eta partida hasiera markatzea. Mariezkurrenaren jokoan topera hastea da, dominatzen hastea. Joni ongi eutsi behar zaio, eta euren kontra pazientzia izan. Beraiei begiratu beharrean gureari begiratu behar diogu, gure jokoan hobekien egiten saiatu.

Bi aste hauek nolakoak izango dira? Lehen aste honetan, ongi erreku-peratu eta masaje pare bat hartu,

"BIOK ELKARREKIN JOKATZEKO ILUSIOA GENUEN, ETA HORREK ASKO BALIO DU. FINALERAKO, PREST"

"BEÑAT EGITEN ARI DEN TXAPELKETA PASADA BAT DA. BERA ATZEAN DELA, EZ DAGO BELDURRIK"

Artola-Mariezkurrenaren eta Laso-Iztuetaren kontrako azken bi asteak oso gogorrak izan direlako, tentsio handikoak. Ondoren, egun pare batean entrenamendu fisiko gogorra egingo dut, eta egun pare batean frontoian entrenatu. Eta ongi mantendu.

Binakako bi txapela dituzu, 2018an Zabaletarekin lortutakoa, Rezusta-Elezkanori irabazita, eta 2021ean Martijarekin lortutakoa, Olaizola-Urrutikoetxearen kontra. Hirugarrena lortzea...

Sekulakoa litzateke, latza. **Zapore berezia izango luke, agian zauden momentuagatik?**

Aurreko biek ilusio handia egin zidaten, bertakoekin, sakandarrarekin lortu nituelako, Polita izan zen, bai Joserekin irabazitakoa, lehen txapela izan zelako, eta Martijarekin irabazitakoa baita ere, nahiz eta hau berezia izan, pandemiagatik frontoian jenderik gabe jokatu genuelako. Gogorra izan zen gertukoekin ezin ospatu izana. Eta orain Beñatekin txapelaren bila goaz. Azkeneko urte eta erdia niretako ez da erraza izan, eta horri buelta emateak sekulako meritua du niretako. Beraz, txapela lortzea oso berezia litzateke.

Kirolariak berehala jainkotzen ditugu eta berehala jartzen ditugu sugarretan. Zentzu honetan finalean egoteak badu alde aldarrikatzaile bat? "Hemen nago" esatea?

Banuen gogoan. Azkeneko urte eta erdia ez da erraza izan, denetarik entzun behar izan dut, eta nahiz eta badakidan entzun beharrak baditudala, burua pixka bat ateratzea nahi nuen eta berriz ere goi horretan egotea. Entrenamenduetan ongi ikusten nintzen, baina gero txapelketetan ez nuen erakusten, eta nire buruarekin haserre nengoen. Orain burua berrituz ateratzea lortu dut, eta alde horretatik bai, honek badu aldarrikatzailea den puntu bat, borrokatzearena.

Galdu edo irabazi, Arbizun ospatu beharra dago.

Jakina! Ohiturak ez dira galdu behar.

Binakakoa bukatuta, Buruz Burukoa abiatuko da. Hori da falta zaizun txapela bakarra. Gorenean egoteak konfiantza gehiago ematen dizu?

Aurretik ez dut Buruz Burukoa entrenatzeko denborarik izan, baina finaletik ongi bukatzen badut, eskuak ongi, asmoa jokatzea da. Prestatu gabe, baina Buruz Buruko on bat egiteko ilusioz nago.

"Gurea ongi egiten badugu, berriz ere gai izango gara"

BEÑAT REZUSTA MUGURUZA PILOTARIA

PILOTA Binakako finalean Artolaren eta Mariezkurrenaren erauntsiari aurre egiteko prest dago atzelari bergararra. "Guk ere mina egiteko aukera badugu"

M.B.G. ARBIZU

Beñat Rezusta "gustura eta pozik" dago Joseba Ezkurdiarekin Binakako finalera heldu delako. **Bergararra, atzelari fidagarria eta ezkerria. Beti nabarmentzen da ezkerria zarela.**

Bai, atzelaria naizelako. Askotan entzun izan dut ezin dela atzelari ezkerria izan.

Argi erakutsi duzu ez dela hala. Pilota denak ez badira ia guztiak ezkerrekin jotzen dituzu.

Bai, bakoitzak jokatzeko bere era du. Beste batzuk badaude ezkerria apenas erabiltzen dutenak, ahal dena eskuinarekin jotzen dutena. Txikitatik atzelari gisa eroso aritu naiz ezkerrekin.

Zure bikotekideek jokoa moldatu behar izaten dute ezkerria zarelako?

Jokatzeko orduan agian pixka bat bai. Uste dut Joseba sakeetan saiatsen dela zabalaldia gehiago zaintzen. Eta pilota ere, ezberdin etorriko zaio.

Betidanik atzelari fina izan zara, baina azken urteetan Zabaleta bezalako jotzaile handiek agian zure lana beste plano batean utzi dute. Une honetan modako atzelaria zara.

Askotan sehetasun txiki batzuk eragiten dute zu ondo-ondo ibiltzetik pixka bat jaitsi eta agian lehen plano horretatik irteteko. Aurten gustura gabilta, eta holako aukerak aprobetxatu egin behar dira, disfrutatzeke, finalak ez direlako askotan izaten. Uda ere polita izan zen niretako, Josebarekin gustura aritu nintzelako; emaitza onak lortu izan ditugu elkarrekin.

Ezkurdiarekin jokatuko zenuela jakin zenuenean zer sentitu zenuen? Berarendako oso pozgarria izan da. Niretako baita ere. Hala bizi dut. Urte dezente daramatzagu biok profesionaletan, baina orain arte ez da txapelketa elkarrekin jokatzeke aukera eman. Hortaz, oso pozik gaude. Txapelketa ona egitea espero genuen, baina hortik finalera sailkatzerara tarte bat dago. Ea aprobetxatzen dugun. **Beteranoa izatea gradu bat dela erakusten ari zarete. Ikusgarri ari zarete.**

Gurea pilotara jokatzeke adin ona dela pentsatzen dut, baina gaur egun plantillak oso gazteak dira. Horregatik bikote beteranoa izendatu gaituzte. Ni ondo sentitzen naiz, eta Joseba oso ondo ikusten dut. Hasieran gure izena ez zen faboritoen artean agertu, eta egindakoarekin pozik gaude. **Ezkurdiak dio lasai dagoela atzean, zurekin sekulako pareta duelako. Onenean zaudela sentitzen duzu?** Une batzuetan hobeto edo okerrago nengoela sentitu izan dut, baina behintzat tantoa ez galtzeko konfiantzarekin nago. Eta hori



Rezusta eta Ezkurdia Artolari eta Mariezkurrenari aurre egiteko prest daude.

inportantea da. Nahiz eta gehiago edo gutxiago jo, garrantzitsua da akats gutxi egitea. Josebak zerikusi handia du horretan, pilota txar mordoak kentzen dizkidalako, eta niri horrek konfiantza handia ematen dit. Eskubirantz doazen pilotetan askotan bera sartzen da, edo bolean sartzen da eta defentsatik erasora pasatu. Halakoez asko laguntzen naute. Une onean nago, konfiantzarekin eta partidak irabazten joateak ematen duen lasaitasunarekin. **Nafarroa Arena pilota astintzeko primerakoa da. Gehiegi, akaso.** Atzera kargatzeko frontoi ona da, baina zentzu horretan ez dut kezkarik. Badakit Josebak bolearrekin mina egingo duela, eta ni saiaturik naiz aukera dudanean aprobetxatzen; guk ere mina egiteko aukera badugu. **Artola eta Mariezkurrena finalean zu lehertzerara aterako dira berriz.** Euren jokatzeke era da. Jonek edozein tokietatik pilota oso

"JOSEBAK PILOTA TXAR MORDOA KENTZEN DIZKIT; NIRI HORREK KONFIANTZA HANDIA EMATEN DIT"

urruti jartzen du, eta Artola baten kontrako hori egiteko oso aproposa da. Badakit lan asko egin behar izango dudala, askotan oso urrutitik, baina obesionatu gabe. Joseba ahal denean sartuko da laguntzera. Pazientziarekin, partida luzea tokatzen bada horretarako prestatuta joan, eta borrokatzera. Aurretik gai izan gara eurak irabazteko, eta gurea ondo egiten badugu, berriz gai izango gara.

Binakako bi txapela dituzu, 2017an Irribarriarekin eta 2019an Elezkanorekin lortutakoak. Urte batzuk pasata, ilusio berezia emango lizuke hirugarren txapela lortzeak? Bai, urte horiek pasa eta gero berriz hor egoteagatik, eta Josebarekin izatearren, dugun harremanagatik. Dugun guztia jarriko dugu txapela lortzeko. **Txalo asko jaso dituzue orain arte.** Pilotan zorte handia dugu, kirol gutxitan izango dira besteen zaleek zure tantoak eta zure garai-penak ere txalotzen dituztenak. Donostian Lasok eta Iztuetak zale asko zituzten, baina hamaigarren tantoan jende askok txalotu gintuen, eta eskertzen dugu. Finala irabazi edo galdu, ospatu beharra dago.

guaixe
irratia_{107.3FM}

MARTXOAK 24-28

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albistek eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Martxoak 24 Joseba Ezkurdia Binakako finalaz


Martxoak 25 Javier Goikoetxea Olaztiko Rallysprintaz

Martxoak 26 Bertso saioa (*Bertsoa.eus*)

Martxoak 27 Fran urias Zelanda taldeaz

Martxoak 28 Agenda berezia





ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Zerua duten ikasgelak

Edo beste modu batera esanda, lau pareta gabeko ikasgelak. Horiek dira, nire ustez, ikaskuntza esanguratsua izateko aukera gehien ematen duten espazioak.

Naturatik geroz eta haratago gaude, baina gure egunerokoan biofilia elikatu ahal dugunez, beste batzuetan hitz egin dudana bezala, hala egingo dut, edonori zuzendutako hausnarketekin.

Gaurkoan, eta udaberriari ongiatorria emateko asmoz, hezkuntza arloari, modu orokorrean ulertuta, zenbait galdera zuzendu nahi dizkiot, buelta batzuk eman eta gure hezkuntza eredua berdetzeko intentzioarekin.

Zuen ikastetxean ba al duzue kanpoan ekintzak egiteko espaziorik? Baiezkoa bada, egunero erabiltzen al dituzue? Askotan gerta daiteke, nahiz eta kanpo espazio bikainak izan, noizbehinka besterik ez erabiltzea.

Erantzuna ezezkoa bada, lasai. Eskolak egiterako orduan lau pareta egin eta kanpo espaziorik gabe zaudete? Lasai, beti dagoelako aukeraren bat naturarekin konektatuago egoteko.

ZUEN IKASTETXEAN BA AL DUZUE KANPOAN EKINTZAK EGITEKO ESPAZIORIK?

Adibidez, ikasketa prozesuan erabiltzen diren materialak natura elementuak izatea: harriak, makilak, hostoak...; literaturara jo, natura gaitzat duten ipuin eta dokumentu asko baitaude; gelan landareak izatea eta denon artean zaintzea...

Eta ekintzak. Adibidez: "Zure zuhaitz berezia aukeratu eta ezagutu". Zergatik da berezia, non dago zehazki (koordinadak zehaztu), zein motatakoa den, zein dimentsio dituen, nolakoa den ukitzarakoan, zenbateko diametroa duen... Hau "Gazte naturalisten koaderno"-an aurki ditzakezue.

Telebistak ez bezala, naturak ez du denborarik lapurtzen, areagotu egiten du.

Hezkuntza berdez tindatzen animatzen zaituztet!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Maisuenea: maiatzak 10, data gorde!

OLAZTIKO GAZTE ASANBLADA

Kaixo lagun!!!

Maisuenea gaztetxea naiz eta 30 urte dirauen istorioa kontatzera nator, nire istorioa. Urte luzeetan beste zeregin bat izan ondoren, "maisuen etxea" izan ondoren, 1995eko maiatzaren 9an herriko gazteak ni okupatzeko beharrarekin etorri ziren. Hamarkada horretan Euskal Herri mailan gaztetxe mugimendua indarra hartzen ari zen. Egoera hori ikusita, Olaztiko gazteek Maisuenea gaztetxea aurrera ateratzea erabaki zuten. Herritar hauek hainbat kolektiboren elkartasuna jasotzean gaztetxearen ateak ireki eta

herritik eta herriarentzat lanean hasi ziren.

Nire istorioa ez da hain ederra izan denbora guztian. Garai gatazkatsuak ere izan dira eta gaztetxea aurrera ateratzeko asko borrokatu behar izan zuten gazteek, izan ere, putre batzuk niretik bota nahi izan zituzten. Baina Olaztiko gazteek tira-bira guztien ginetik aurrera atera ziren eta hemen jarraitzen dute.

Urteetan zehar, asko eta asko izan dira hemendik atera diren oihi eta aldarriak: *IN-TSU-MI-SI-OA!* edota *EZ EZ EZ, ERRAUSKETARIK EZ!* Beste gai askoren artean: euskal preso politikoak, borroka

ekologista, herrigintza, AHTa, feminismoa, askapen nazionala, internazionalismoa eta abar.

Aurten orain dela 30 urte okupatu nindutela ospatzen da eta herriko gazteek festa izugarri bat prestatzen ari dira. Maiatzaren 10ean prestatutako ekintza guztietan parte hartzen animatzen zaituztet.

Berehala informazio gehiago jasoko duzue, baina momentuz datarekin gelditu, maiatzak 10, ez zarete damutuko!

Agur bero bat!

* Maisuenea gaztetxeari beste hainbat urte opa dizkiogu!!! Iraganen ereindako haziak loratzen darrai! Gaztetxeak aurrera!!!



OBJEKTIBOTIK

Lizarragako lore ontzi artistikoak

Lizarragan panpin berezi batzuk aurkitu ditugu, hauek ez dira biguinak eta kalean egon daitezke zartatu gabe. Bizilagun batek egindako panpin hauek buztinez egindako lore ontziak estrategikoki elkartuz, sokekin lotuz eta modu ederrean margotuz sortutakoak dira.

Bizilagun honek etxearen atarian jarri ditu, atearen alde banatan, sartzen den orori ongi etorri xelebrea emanez.

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbizua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@komunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Aldaketa Lanbide Heziketako eskaintzan

Administrazio Kudeaketa teknikari erdi mailako zikloa euskaraz eskainiko du heldu den ikasturtetik aurrera. Mikroinformatika sistemak ikasketak kendu ditu departamentuak. Teknologia aplikatuko bigarren gela jarri dute institutuan

SAKANA

Sakana Lanbide Heziketako institutuaren heldu den urteko ikasketak eskaintzan aldaketa pare bat egonen dira. Batetik, mikroinformatika sistemak eta sareak ikasketak duala desagertu egingen da. Eta, bestetik, Administrazio Kudeaketa teknikari erdi mailako zikloa sortuko da. Euskarazko ikasketak izanen da. Mari Jose Oiarbide Izagirre ikasketak buruak azaldu duenez, "ziklo hori bukatzean ikasleak bezeroarekiko harrera eta harreraneko administrazio jarduerak eta administrazio kudeaketako jarduerak egiteko gai izanen da". Lan irteerak lirategi: enpresako hainbat arlotako administrari laguntzailea izatea, bulegoko laguntzailea, ordainbideetako enplegatua, harreragilea, bezeroari arreta emateko enplegatua edo diruzaintzako enplegatua. Oiarbidek azaldu duenez, "enpresariak bilera batean aipatu zuten administrazio langileak behar zituztela".

Ikasketak buruak azaldu duenez, "erdi mailako ziklo berri hori Merkataritza Zerbitzuetako Oinarrizko Graduko zikloko ikasleek beraien ikasketek jarraipena emateko modua izan daiteke, hala nahi badute behintzat. Izan ere, bi ikasketak lotura dute, familia berekoak dira".

Ikastetxeko eskaintzatik mikroinformatika ikasketak desagertuko da heldu den kurtsoan. 2021-2022 ikasturtean ezarri zen, eta ikastetxean eman zen euskarazko bigarren zikloa izan zen. Oiarbidek azaldu duenez, "departamentuak ikasle faltagatik



Matrikulazio garaia apirilaren 2tik 11ra izanen da. ARTXIBOA

LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUAN 220 BAT IKASLE IKASTEN ARI DIRA KURTSO HONETAN

kendu du ikasketak hori. Bigarren mailan besterik ez zeuden ikasleak". Azaldu duenez, ikasketak horiek egin dituzten ikasle gehienak beste zikloren batean ikasten ari dira.

Institutuan eta enpresan

Kurtso honetan ikasketak duala ziklo guztietako lehen mailan ezarri da. Hurrengo urtean bigarren maila guztietan izanen da. Ikasketak dualak ikasleak lan mundura hurbiltzeko eta ezagutzeko aukera ematen dien, enpresetan praktikak egiten baiti-

tuzte. Oiarbidek azaldu duenez, "bi dual mota daude. Orokorrean ikasleak 500 eta 700 ordu arretako praktikak egiten ditu enpresan. Eta intentsiboa, 700 ordutik gorako praktika ordainduak dira". Halako hiru dituzte: soldadura eta galdaragintzan, fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioan eta automatizazioan eta industria robotikan.

Ikastetxean azken urtetan faxada berri eta mikroinformatikako ikasketetarako bi gela berri egin ziren. Gainera, 3D inprimagailu eta ikus-entzunezko ekipamendua zuen teknologia aplikatuko gela bat zuten. Orain bigarrena jarri dute, industria bideratuago, robotak eta soldadurako simulagailua ditu. Bestalde, gaitasun digitalak lantzeko 20 ordenagailuko gela ere badu, ikastaroak emateko balio duena.



Bi kaleetako trafikoa bideratzeko biribilgunea egingen den ingurua.

Biribilgune bat aurreikusi da Bi Ahizpe kalean

Kaleak eta Akaborro industrialdearen gainetik pasatzen den kaleak bat egiten duten tokian hain zuzen ere

IRURTZUN

Lurralde Kohesiorako Departamentuak behin betiko onartu du Irurtzunen iparraldeko sarreran biribilgune bat egiteko proiektua. Zehazki, NA-2409 errepideko, Bi Ahizpe kaleko, 20+600 kilometro puntuan eraikiko du aipatutako biribilgune hori. Hain zuzen ere Bi Ahizpe kaleak eta Akaborro industrialdearen gainetik pasatzen den kaleak bat egiten duen tokian aurreikusi dute biribilgunea. Proiektuak 1.233.534,83 euroko (BEZa barne) aurrekontua du. Lanak egiteko guztira 1.282 metro karratu desjabetuko ditu gobernauk. Biribilguneko lanek lau lurjabetu eraginen die: herritar bat (507 m²), enpresa bat (13 m²), Irurtzuno Udalak (29 m²) eta Nafarroako Gobernuak (733 m²).

Unai Razkin Iriarte alkateak argitu duenez, "departamentuak proiektua onartu du. Prozesu guztiaren aurreko pausoa da. Baina lanen deialdia epe laburrean ez dutela egingen esan zituzten astearrean". Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu zion bi kale bere izenean jartzeko. "Lizarrakalea (NA-7010) berehala udalaren eskura pasako da", aurreratu du alkateak.

Udalak jabetzan nahi duen beste kalea Bi Ahizpe da, egun NA-2409 errepidea dena. Horretarako, gobernuari eskatu dio saihebideari eta Akaborro industrialdearen gainetik pasatzen den kaleari errepide izaera ematea. "Esan zituzten azken kale hori ezin zuela errepide nagusi izan aipatu bidegurutzak ez zuelako araudia betetzen, neurriengatik eta bestelakoengatik. Bidegurutzea berritzea eskatu genien. Proiektua horretarako da, biribilgunearen bidez inguru hori ordenatu eta araudira egokitze", azaldu du Razkinek. Alkateak gogora ekarri du saihebidearen aurreneko proposamenetan ere, duela 25-30 urte, hain biribilgune bat egitea aurreikusten zela.

Bestalde, departamentuarekin izandako bileran Razkinek izan du saihebidearen bigarren fasearen berri: "autopistarako irteerako lanen lizitazioa bukatzen ari dira. Alegaziorik ez bada, lanak garila aldera hasiko lirategi eta urte akaberarako despeditu". Lan horrek 1,6 milioi euroko aurrekontua du. Izurdiagako saihebidetik erre abiaturako lizitatekeen erre berri bat eraikiko dute autopistarekin bat egin arte.

TALLERES GOÑI TAILERRAK

- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



*Joseba
Sarrionandia*
Hitzen libertatea

Martxoak 28, 18:30ean
Iortia Kultur Gunea (Altsasu)

Ondoren auzatea


guaixe
fundazioa
Izan giltzarri!

Mank
s a k a n a 



"Modu jasangarriagoan egin nahi genuen"

MAITE AZPIROZ RAZKIN LACTURALEKO MARKETIN ARDURADUNA

Behien hondakinekin biogasa sortu eta bere burua elektrizitatez hornitzen ari da Etxeberriko behitegia

A.A.I. ETXEBERRI

Aurretik zituzten bi energia berriztagarriei beste bat gehitu diote Lacturaleren behitegian.

Biogas planta noiztik duzue martxan?

Lacturalen beti ari gara lanean gure kontsumitzaileek gure elikagaiekin "irabaz" dezaten. Horregatik gure produktuak oraindik modu jasangarriagoan egiteko asmoa geneukan. Biogasaren proiektua 2024ko apirillean hasi zen probatzen, eta laister egonen da %100ean.

Zer azpiegitura duzue horretarako?

Biogasa sortzeko digestore bat behar da, hau da, behien hondakin guztiak sartzen diren lapiko erraldoi bezalako bat. Bertan, temperatura bero eta oxigeno gabeko baldintzetan, 20 eta 30 egun artean hondakinaren materia organikoa deskonposatu eta biogasa edo gas berdea sortzen da, gehiena metanoa dena. Gas hori elektrizitate sorgailua duen motor baten erregai gisa erabiltzen da. Gure filosofiari leial, bertako ingeniari enpresa batek egin digu dena, Etxeholzek.

Etxeberriko behitegiko "erregaia" erabiltzen duzue bakarrik edo talde guztiko abeltegietakoa?

Soilik Etxeberriko behitegiko hondakina tratatzeko dago diseinatua, kanpotik beste ezer gehitu gabe. Dena ongi badao, besteetan egitea baloratuko genuke, baina beti tokian tokiko hondakinak tratatzeko filosofiarekin, hondakinak garraiatu beharrik gabe.

Egunero sartzen diozue?

Prozesu jarraitua da. Egunero egunean sortutako hondakin freskoa sartzen da alde batetik. Bestetik, egunak daramaten hondakinak ateratzen dira, metano guztia kenduta. Azken horiek ez dute ez kutsatzen ezta usaintzen.

Zenbat elektrizitate sortzen duzue?

160 kW orduko, egunean 24 orduz etenik gabe. Urtean ia 1.400.000 kW orduko. Beste berriztagarriei alderatura, teknologia horrek



Egitura borobila da biogas planta. UTZITAKOIA

"DIGESTATOA ONGARRI NATURAL GISA ERABILTZEN DUGU GURE LARREETAN"

ez du eguzkiarekiko edo haizearekiko menpekotasunik.

Zertarako?

Behitegiaren elektrizitate behar guztiak asetzen ditugu biogas plantarekin. Gainera, soberan dugun energia bulegoetarako eta jogurtak ontziratzeke fabrikarendako ere bada. Azkenik, Etxeberri herrira ere bideratzeko asmoa dugu.

Ur beroa sortzen duzue?

Bai, aipatutako motoreak elektrizitatea eta ur beroa sortzen ditu aldi berean. Sortutako beroaren erdia digestorea berotzeko erabiltzen da. Beroaren beste erdia etxaldean nola probestu dezakegun aztertzen ari gara orain. Ez dugu energia horrekin aparteko negozio bat egin nahi, nahi duguna da ekoizten ditugun elikagaiak geroz eta jasangarriagoak izatea. Noski kalitatea eta bertakoa izatea bermatuta dago

Lacturalen, Nafarroako Ekoizpen Integratuko esnearen ziuertagiria baitugu.

Biogas plantak hondakinik sortzen du?

Biogas plantatik digestato izeneko materiala ateratzen da. Pixa eta kakarekin alderatuta, digestatoak ez du usain txarrik eta ez du atmosferara metanorik isurtzen, abantaila handia da bai langile eta bai bizilagunendako. Digestatua ongarririk gisa erabiltzen dugu gure larreetan belarra eta artoa ereiteko, beraz, zero dira sortutako hondakinak. Horrela zikloa ixten dugu, behiek jaten duten belarra beraien hondakinekin ekoiztuko dugu eta, gainera, horiekin ere energia berriztagarria sortu dugu.

Energia autokontsumorako beste instalaziorik baduzue?

Bai, orain dela 20 urte geotermia dugu bulegoetako berogailu eta haize egokiturako. Eguzki plakak 2020an jarri genituen. European hiru energia berriztagarriekin lan egiten duen lehenengo behitegia gara, Lacturalen beti ere aintzindariak izan gara: Ekoizpen Integratuan, jezte robotetan eta orain energia berriztagarrien erabileran.



Zikloturistendako ibilbidea egiteko lanak hasita

Ibarra zeharkatuko duen eta herri eta gune interesgarriak lotuko dituen sare zikloturista bat egiten hasi dira. Bide nagusiak adarrak izanen ditu Arakilen eta Ergoienan. Bideak Irurtzunen Plazaola bide berdearekin (Eurovelo1) bat egiten du. Gainera, Arabako sare zikloturistarekin bat egiten du

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak herritarren mugikortasun iraunkorra sustatzeko ibarra zeharkatuko duen bizikleta ibilbide bat eraikiko du. Bidea bakarria bada ere, lanak bost zatitan banatu eta hala eskaini ditu Mankek. Lanak, guztira, 2.018.317,38 euroko (BEZik gabe) aurrekontua du.

Lehenengo lotea Irurtzun eta Ergoiena arteko bizikleta ibilbidea egokitzean datza eta 749.922,21 euroko (BEZik gabe) aurrekontua du. Lacunza Hermanos enpresako langileak aste honetan hasi dira lanak egiten. Bigarren lotea Arbizu eta Iturmendi arteko zatia da eta hura A. Bengoetxea enpresak egiten

du 605.308,54 euroren (BEZik gabe) truke. Hirugarren lotea Urdaibai eta Ziordia arteko ibilbidea egokitzean datza. Hori ere A. Bengoetxea enpresak egiten du, horregatik 367.550,48 euro eskuratuko ditu. Lan horiek martxoan despiditu aurretik hasiko dira.

Laugarren lotea Irurtzun eta Agurain arteko seinaleztapenari dagokiona da, eta 122.782,70 euroko (BEZik gabe) aurrekontua du. Azkenik, bosgarren lotea bidean jarri beharreko altzariak, babesak eta bestelakoak jartzeko da. A. Bengoetxea enpresak eskuratu du kontratu hori 172.753,45 euroan (BEZik gabe). Lehen hiru loteetako lanak garilaren 31rako despidituta egon behar dute eta



atzeneko bi loteetako agorri-laren 31rako.

Finantzazioa

Lana finantzatzeko Mank-ek hainbat ate jo ditu. Hala, aurreneko lotea ordaintzeko Nafarroako Gobernuaren zuzeneko dirulaguntza du, Garraioen eta Mugikortasun Iraunkorraren zuzendari nagusiak hala ebatzita. Bigarren eta laugarren loteetarako dirua Europar Batasunaren Next Generation erakundeak finantzatzeko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak Plazaola-Sakana-Ultzamaldea Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planari emandako dirulaguntzak dira.

Hirugarren lotea Garraio eta Mugikortasun Iraunkorraren zuzendari nagusiaren dirulaguntza da. Atzeneko lotea, berriz, Turismoko zuzendaritza nagusiaren dirulaguntza da. Done Jakue Bideko ibilbideetarako toki-erakundeendako dirulaguntza hain zuzen ere. Deialdi hori Europar Batasuneko Next Generation funtsak finantzatu du Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez.

Irizpideak

Ibarreko bizikleta sarea proiektatzeko garaian Mank-ek sei irizpide nagusi izan ditu kontuan. Lehen-lehenik, Sakanako Mugikortasun Sarea sortu nahi izan du. Horretarako, ibilbidearen trazadurak herrien arteko mugikortasuna segurtasunez bermatzea du helburu.

Horretarako, besteak beste, nahi izan da Sakanako herri guztiak lotzea, trazadura nagusi baten eta hainbat loturen bidez. Aldi berean, ezugarri zikloturistak dituen trazadura baten bidez, turismo-gune irisgarri nagusiak lotu nahi izan ditu Mank-ek. Horretaz gainera, Izurdiaga, Uharteko Arakil, Etxarri Aranatz eta Altsasuko tren geltokiak eta bizikleta sarea lotu nahi zituen. Trazadura egiterakoan ere pentsatu zuten jardueraren ekonomikoko puntuak (industrialdeak edo zerbitzuguneak) trazadura nagusiarekin lotzea.

Horrekin batera, Donejakue bidea kontuan izan dute, eta trazadurak ibarreko ondarearen mugarrietatik pasa behar zuen, esate baterako, Itxasperriko eta Zamartzeko ermita erromanikoak, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo herriguneak eta Urdiain eta Altsasuko San Pedro ermita.

Sakanako bizikleta bidea egiteko kontuan izan den beste irizpide bat Eurovelo sarean eskatzen diren parametroak betetzea da. Hau da: bideek bi zikloturista gurutzatzeko adinako zabalera izan behar dute; trazaduran %6 baino malda handiagorik ez egotea; gutxienez luzeraren %80an zolatuta egotea; errepide zati-tan zirkulazioak eguneko 1.000 ibilgailu baino gutxiago izatea; zoladurak bizikleta "hibridoak" ibiltzeko modukoak izatea; ostalaritza zerbitzuak, ostatua, konponketa azpiegiturak 30 km-tik behin egotea, baita bizikletak

Datuak

67,53 km
Bide sarearen luzera.

46,35 km
Irurtzun eta Ziordia artean.

13,37 km
Arakilgo adarren luzerak.

0,29 km
Uharteko Arakilgo tren geltokirako adarra.

5,75 km
Ergoienarako adarraren luzera.

1,75 km
Etxarri Aranazko tren geltoki eta kanpinerako adarraren luzera.

garraiatzeko garraio publiko edo pribatua erabiltzeko aukera ere eta, azkenik, trazadurak urte osoan egon behar du irekita.

Martxan jartzea eta mantentzea errazteko, trazadura egiteko garaian Mank saiatu da mota askotako bide publikoei lehentasuna ematen, dauden bideak erabiltzen. Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuaren sareko trafiko gutxiko errepide zati asfaltatuak erabili dira. Gainera, bide segurtasuna ziurtatzeko trazadurak Nafarroako Gobernu Herri Lan Departamentua-

ren oniritzia jaso du. Gainera, dauden herrietako mugikortasun udal planak jaso dira proiektuan.

Jarduera bereziak

Sakanako bizikleta sarea egiteko lau lan berezi egin behar dira. Aurrena Arbizun. Herriaren eta Utzubar industrialdeko errotonda artean bizikletendako bide berri bat eraikiko da. Bide berri hori NA-2410 errepidearen iparraldean egingen da. Tarte batzuetan garai bateko errepide zahar-raren trazadura erabiliko da, baina besteetan berria egingen da.

Etxarri Aranazko Utzubar industrialde parean dagoen errepide zaharra bizikleta berrirako erabiliko da. Baina bide zahar hori Etxarri Aranazko Eragako bidegurutzeraino iristen da. Handik herriko errotondaraino bide berri bat egingen da NA-2410 errepidearen hegoaldean. Etxarri Aranatzen bertan, dermioan, bide berri bat egin behar da bizikleta bide nagusia Lizarragarekin lotzeko. Zehazki, Epertegietako bidea Lizarragako Astarategietako bidearekin lotuko dira. 650 bat metroko luzera izanen du.

Azkenik, Altsasun, Ameztia auzoan, trenbide azpiko bi pase-tako zoruaren 10 cm-ko porlana botako da. Helburua da zoruak alde batera malda txiki bat izatea eta erretan bat egitea, eta hala euri urak egoki jasoko dira, orain putzu ugari sortzen baitira.

Altzariak Ibilbideetan, bidegurutzetan eta hiri-espazioetan

plastiko birziklatuzko altzariak (mahaiak, eserlekuak bizkarraldearekin edo gabe) eta altzairu galbanizatuzko aparkalekuak jarriko dira.

Bidean zehar jarriko dira informazio panelak, interpretazio mahaiak, ibilbidea markatzeko balizak eta norabidea adierazten duten posteak jarriko dira. Gainera, bidegurutzetan bizikletak daudela eta abiadura 30 km ordua murrizteko seinalean mar-gotuko dira zoruan. Altsasun, lapurreten kontrako lau bizikleta aparkaleku itxi jarriko dira, sei bizikletendako tokia izanen dute. Bi autobus geltokiaren ondoan jarriko dituzte, bat tren geltokian eta atzena tren galekuan. Bestalde, Uharteko Arakilen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen eta Altsasun bizikletak garbitzeko eta urak biltzeko ekipamenduak proiektatuko dira.





KOLABORAZIOA

XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU

Kukua (*Cuculus canorus*)

Agian testu hau irakurtzen duzuenerako mendian bere kantua entzun duzue. Izan ere, kukua, martxo inguruan gure basoetara iristen den espeziea da. Espezie migratzaile honek udaberri eta uda igarotzen du gure latitudeetan. Bertan hainbat tximeleta eta sits espezieren larbez elikatzen da. Intsektu hauek sortarazi ahal duten plagen zuzentzaile natural baten aurrean gaude. Tamainaertaineko hegaztia da, buztan luzea eta puntan amaitutako hegoak ditu. Hortaz, hegan doanean hegazti harrapariertainekin nahastu dezakegu, gabirai edo belatzekin kasu.

Kukuaren kantu bisilabikoa arestian esan dugun bezala, martxotik aurrera entzun dezakegu. Arrak bere lurraldea defendatu eta emea erakartzeko emititzen duen soinua amaiezin eta nahastezina da. Estrofa erritmo berean errepika dezake ordu luzez, emea hurbil sentitzen duenean erritmoa apur bat azkartu dezake: ku-ku, ku-ku...

Amonak zioen moduan, garai honetan mendira beti diruarekin joan beharra dago. Izan ere, kukuaren kantua entzuten duzun lehenengo egunean poltsikoan sosak badituzu, dirurik ez zaizu

faltako urte osoan zehar. Hori bai, kantuak sosik gabe harrapatzen bazaitu kezkatzen hasi beharko zara. Hortaz, zuek erabaki. Honetan sinistu ala ez? Nik nire amonaren gomendioari ez diot uko egingo eta hemendik aurrera beti txanpon batzuk eramango ditut patrikan.

Kukuaren ugalketa oso berezia da, izan ere, kabi parasitoak dira. Hau da, ez dute inongo energiarik xahutzen kabia eraikitzen. Kuku emeak hainbat txori espezieren kabi parasitoak dira, normalean, eme bakoitza espezie batean espezializatzen da. Dirudienez, kukuek 90 espezie baino gehiago parasitatzeko gai dira, haien artean, guretako oso ezagunak diren txantxangorriak.

Begi bistan, jarrera nahiko ankerra dirudi, alferkeria beste maila batera eramatea. Baina kuku emeak sekulako lanak egin behar ditu bere lurraldean dauden txori ostalarien kabiak bilatzen. Kuku eme batek 20 arrautza errun ditzake, hortaz, 20 kabi desberdin bilatu ahal ditu ugalketa sasoi batean. Horrela, 20 kabi desberdinen kokalekua memorizatu eta mapa espazial oso konplexua garatu behar du bere burmuinean. Kukuak eboluzioan zehar kantu



DANIEL GARCIA MINA

konplexuak garatzeko ahalmena galtzen joan dira, burmuinaren beste atal bat garatzeko, hipokanpoa, hain zuzen ere. Hipokanpoak mapa espazial oso konplexuak garatzen paper oso garrantzitsua betetzen du. Kuku eme batek kontrolatu behar dituen ostalari bikote guztien ugalketa uneak ezagutu behar ditu bere arrautzak une egokian kabian erruteko. Bikote ostalariaren arrautza bat gutxienez kabian

han uzteko. Kukua, kabian sartu eta bertan dagoen arrautza bat bota behar du berea uzteko, horretarako txori ostalariak engainatu edo haien despistea itxaron beharko du. Gauza bera, bere lurraldean kontrolatzen dituen txori ostalarien kabi guztiekin errepikatu behar du, lan itzela da eta erakusten duten espazioaren memoria katalogoz kanpo dago. Hortaz, kuku emearen ugalketa sasoiak ez dirudi hain lasaia

Kuku emeen arrautzek hautatu duten txori ostalarien arrautzen kolore eta forma imitatzen dute. Horrela, iruzurra guztiz bermatuta gera daitekeela uste dugu ezta? Ba ez, ez da inondik inora horrela, txori ostalari askok kukuen arrautzak antzemateko estrategiak garatu dituzte. Australian, hango kukuekin egindako ikerketa batean hurrengo aurkitu zuten: hango txori ostalari batzuk, haien arrautzak inkubatzen dituzten bitartean soinu kantu bereizgarri bat irakasten diete. Txitak oraindik ez dira jaio baina behin jaiota errepikatu behar duten kantu kodea ikasten dute. Txori ostalariak txita jaio berrien kantuak entzuten dituzte, kukuen txitak kantua ikasteko aukera izan ez duenez, kantu kodea ez du errepikatuko. Ondorioz, txori ostalarien txita arrotza kabitik botatzen dute. Zeintzuk dira ankerrak orain?

Ikusten dugun moduan, ostalari eta parasitoen guda armamentistikoa ez da bukatu, eta ziurrenez ez da inoiz amaituko.

DUELA 25 URTE...**Tren pasabidea kentzeko batzarra**

Tren pasabideak kentzeko plangintzaren barruan Iturmendi-koaren txanda iritsi zen. Trenbidearen gainean zubia eginen zen. Erabakia hartzeko udalak hiru alternatiba prestatu zituen eta herria batzarrerara deitu zuen erabakia hartzeko. Aukeretako bat autobiako biribilgunetik abiatzen zen eta beste biak Aritzaga ermitaren albo banatik. Azkenik, herriak orduko bidetik gertuen zegoen aukeraren alde egin zuen.



Dantzalekuko igerileku ertaina. UDALA

Dantzalekuko igerilekua udarako prest izanen da

Igerileku ertaina eta konpentsazio ontziak berrituko dira. Udalak bi elkarterekin hitzarmenak sinatu ditu

ALTSASU

Udako igerilekuan konpentsazio lanak egiteko lanak hirutan emateko deialdia zuen Altsasuko Udalak joan zen urtean. Bitan hutsik gelditu zen deialdia, ez zen enpresarik aurkeztu. Eta beste batean enpresa bat aurkeztu zen, baina atzera egin zuen. Ondorioz isuna jaso zuen. Oraingoan, diru kopuru handiagoa eskainiz eta lana bi lotetan banatuta, kontratua ematea lortu du udalak. Construcciones No-veleta S.M. enpresak egingo ditu lanak, 56.986,08 euroren (BEZik gabe) truke. Igerileku ertainaren iragazketa arazoak konpontzeko haren zeramikazko estalduraren gainean PVC armatuzko estaldura berria jarriko du. Bestetik, igerileku handiaren eta txikiaren instalazioaren konpentsazio hodiak ere konponduko ditu. Hura barrutik kanpora eta kanpotik barrura sartzen zaie. Urak kanpora ihes egitearen ondorioz, igerilekuei ura etengabe sartu behar zaie. Eta ura sartzearen ondorioz, berriz, lohia sartu eta ponpak tratatzen dira. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "igerilekuak garagarri-laren bigarren hamabostaldian irekitzea aurreikusten dugu".


Bestalde, Ollok jakinarazi du Altsasuko Dendarien Elkartearrekin hitzarmenak sinatu dituela. Alde batetik, "elkartek tokiko merkataritzaren aldeko animazioa egiteko" aldeek urtero sinatzen duten hitzarmena. Bestetik, herriko dendetan kontsumoa sustatzeko bonuen kan-

paina egingo du elkartek aurten ere. "Udalak 15.000 euro bideratuko ditu ekimen horretara". Alkateak aurreratu duenez, aurten ere Kafe Konpondu jarduerak izanen da. "Batuta Sakana elkartek hondatuta dauden etxetresnak eta altzariak konpondu eta berrerabiltzeko tailerra" zabalduko du Gure Etxea eraikinean.

Frontoi txikia

Kirol azpiegitura berriko lanak "ia bukatuta daude. Orain Iker Uribe margolariak mural bat margotuko du frontisaren atzeko paretan, eta bertsoa ezker paretan", azaldu du Ollok. Gaineratu duenez, lanak egiterakoan ezustekoak izan dituzte: "frontoia eraikitzeke zorua prestatzen ari zirelarik, Domingo Lumbier ikastetxearena zen berogailu bat agertu zen. Dirudienez, han utzi zuten ikastetxea 1999. urtean bota zutenean. Bestetik, Baratzeko Bide enparantzako iturria eta suhiltzaileendako ur hartuak hornitzen dituen ur hodi bat agertu zen. Udalak ez zuen ur hodi hori kontrolatuta. Beraz, berogailua kendu zen eta, by-pass baten bidez, ur hodiaren ibilbidea aldatu zen". Horrek guztiak lanak emateko kontratua aldatzea ekarri zuen.

Azkenik, udalak Larrezabalgo bidea asfaltatzeko lanen kontratazio espedientea onartu du. "Asfaltatuko den zatia institutuaren eta Beikolar auzoaren arteko da (860 m)". Horrekin batera, bost baso lan kontratazio espediente ere onartu du.



Igogailua udaletxeko ezkaratzean eta liburutegiko atetik.

Ziordiko udaletxeko igogailua, martxan

Eraikineko solairu guztietan du sarrera-irteera, baina azkenekoan, liburutegian mugatua da. Aralur enpresa zenari dagokionez, Ziordiko Udalak bidea itxi du eta gobernuak zer egingen duen zehaztu dio

ZIORDIA

Ziordiko udaletxeak otsailaz geroztik igogailua du. Hura jarritz udalak herriko etxeko irisgarritasuna bermatu nahi izan du. Horretarako, udal eraikinean obra handia egin du. Ezkaratzean hartu daiteke igogailua eta beste hiru solairuetara igo. Azkenekoan, ganboikoan, liburutegia dago. Hura itxita dagoenean igogailua haraino ez igotzeko sistema bat jarri du udalak. Halakoetan igogailua bakarrik bigarren solairuraino igoko da. Liburutegia zabalik dagoenean, liburutegian giltza batekin zabalitzen du, eta igogailuak goraino igotzeko aukera du. Baina liburutegian ikasten edo irakur-

tzen ari direnei traba ez egiteko, udalaren nahia da liburutegian soilik mugikortasun arazoak dituztenei aukera ematea liburutegira igogailuan igotzeko. Lanek 220.054,32 euroko aurrekontua izan dute. Joan zen urte hasieran hasi ziren lanak eta otsailean despeditu dituzte. Obra finantzatzeko Ziordiko Udalak Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planeko dirulaguntza izan du.

Aralurren pauso txikiak

Aralur enpresa itxi zenean, Gipuzkoatik ekarritako ongi ondu gabeko materia organikoko metak utzi zituzten. Ondoren, Gipuzkoan birziklatzeko emanda-

ko arropa metaz beterik agertu zen lantokia. Ziordiko Udalak bi gertakariak salatu zituen. Azkenik, jendeak lantegi ingurua kontrolik gabeko zabortege gisa eta han denetarik botatzeko erabili izan du.

Nafarroako Gobernuaren atzetik luze ibili ondoren, "pauso txikiak ematen hasi direla" jakinarazi du Olatz Irizar Martinez alkateak. "Udalak lantegirako bidea itxi du. Abeltzainek badute itxitura zabalatzeko giltza". Alkateak azaldu duenez, "gobernuak lur zati handi bat eramateko asmoa du. Bestalde, dagoeneko arroparik apenas dago. Sutea izan zen eta guztia kiskali zen. Errautsa besterik ez dago".

Etixerako egur loteak jasotzeko aukeraz galdetuko du udalak

Enpresa batek lotea moztu, basotik atera eta lotea eskatutako tokian uztea da aukera berria

ALTSASU

Altsasuko Udalak eskatuta, inkesta egingo da altsasuarren artean, etxeko egur lotearen eredu berri baten inguruko interesa aztertzeko. Izan ere, etxeko egur sortak gero eta urruna-

go eta eskuraezinago egongo direla. "Horrek zuhaitzak moztu eta lekualdatzeko garaian istripu arrisku handiagoa ekarriko duenez, komenigarria da beste eredu bat baloratzea". Proposamena, eskatzaileek enbor osoz

osatatuko 6 tonako lotea jasotzea da haiek eskatutako tokian. Lantegia egiteaz eta garraiatzeaz udalak kontratatutako enpresa bat arduratuko litzateke. Lotearen prezioa 350 euro ingurukoa izan da. Bestalde, zozketa bidez lotea eskuratzen duten altsasuarrek beraiek kenduko dute lotea dagokion eremutik. Altsasuarrek lote ereduaren inguruko interesa ezagutzeko asmoz, inkesta egingo da 012 telefonoaren bidez lotea eskatzen duten pertsonen artean.



TXIOKA HAUR IKASTOLA

Hezkuntza garapenaren lehen urratsak

Txioka Haur Ikastola Haur Hezkuntzako lehengo zikloari dagoen Iñigo Aritza Ikastolako 0-16 hezkuntza proiektuaren lehen urratsa da. Ikastolako guraso elkarteak bideratutako proiektu hau, herritik eta herriarentzat sortutakoa, gizarteak dituen erronka eta behar desberberdinei erantzuteko asmoz sortutakoa.

Euskara eta euskal kulturaren trasmisioa ardatz izanik, murgiltze-ereduan oinarritutako hezkuntza proiektua da,

hau da, ikaslea euskaldun eleantz konprometitu izan dadin, antolaketa %100 euskalduna da, ikaslearen hezkuntza eskaintza guztia, gela barruan zein kanpoan egiten duguna euskarazkoa izanik.

Ikaslea da hezkuntza proiektuko protagonista eta horregatik kokatzen dugu haurra erdigunean. Bere garapen holistikoa aurrera pausoak emateko hezitzaileok bidelagun gara, bere ongizatea helburu izanda, hau-

rraren erritmorra eta beharrei egokituz. Hau guztia posible izateko, inguru seguru eta konfidantzakoa eraikitzen dugu, garapen soziala, afektiboa, kognitiboa eta komunikatiboa garatu dadin. Gainera, **garapena modu autonomoan** izan dadin, **deskubritzeko eta esperimentatzeko askotariko espazio** antolatu eskaintzen dizkiogu, egunerokotasunean ikertzeko aukera desberdinak eskainiz, bizipen desberdinetatik garapena eman dadin. Hortaz, eskaintzak diseinatzeaz gain, ezinbestekoa da eguneroko espazioak ere haien garapen, interes eta erritmoei egokitzen diren proposamen desberdinekin hornitzea: naturarekin harremana bermatzen duten egitura gabeko espazioak, hain interesetatik sortutako espazio desberdinak, jolasleku antolatuak,...

Hori guztia **aniztasunaren etengabeko begiradatik** egiten



dugu, aniztasuna baita gure beste ardatz nagusietako bat. Hori dela eta, gure hezkuntza proiektuaren beste indarguneetako bat umearen garapen osoa bere oinarritzeko heziketa urte guztietan zehar modu koherente, integral eta aniztasuna oinarri izanda egiten dugu **orientazio departamentuaren elkarlan eta aholkularitza sendo baten bitartez**. Lankidetzak eta elkarlan

hori norabide bikoitzean gauzatu dugu. Alde batetik, hezkuntza prozesuan parte hartzen dugun profesional guztiekin dagoen lankidetzak sistematikoaren bitartez, eta bestetik, familiekin eraikitako elkarlanaren bitartez. Izan ere, argi baitauek gure haurren garapenean beste ardatz nagusi bat familiak eta gurasoak direla. Kezkak eta zantzak partekatutako izanik, haurren garapena modu integratuz eraikitzeak aukera elkarlana eta hezitzaile eta familien arteko eguneroko erlazio estua dela ikusten dugu.

Beraz, **etorkizuneko herritar** euskalduna, erabakitzaile-ekintzailea, barne sendotasuna duena, kooperatiboa eta eraldatzailea da gure heziketa proiektuak **hezten duen ikaslea**.

Zatoz GU ezagutzera! Zatoz Txioka Haur Ikastolara!

BIHARKO SAKANA ETA EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN!



0 km
SAKANAKO
GIDA

HAUR ESKOLARAKO
ARROPA BEHAR AL DUZU?

<https://guaixe.eus/gida/>



KATTUKA HAUR ESKOLA

Zerohiru Hezkuntza Proiektuaren ardatz nagusiak

Ekintza autonomoaren balioa
Garai honetan, berebiziko garrantzia dauka benetako autonomiaren garapenak; barreneko senak bultzatzen duena.

Haur txikiarengan ere, ezinbestekoa ikusten dugu haien berezko jarduerak, eskaini diezaieken plazerra deskubritzea. Hau garatu dadin, haurrak egoera egokietan jarduteko aukera izatea behar du. Jarduera hau haurrarentzat esanguratsua izateko, ezinbestekoa da bere iniatibatik jaiotzea, eta honetarako mugimendu eta jolas librean jardutea garrantzitsua da.

Heldu erreferenteak, hemen badu zer esanik. Alde batetik, ez dago modu zuzenean egindako eskuhartze bat, zeharkakoa baizik. Oinarrian, hiru modu desberdinetan egiten dena:

- Haurraren gaitasunen baitan helduak egiten duen egoera eta material eskaintza.
- Haur bakoitzaren lorpenen (motoreak, kognitiboak, komunikatiboak...) erresetua.
- Haurraren ekintzaren aurrean heldu erreferenteak egiten dituen komunikazio adierazpenak.



Oinarrizko afektuzko harreman baten balioa

Haurraren ordurarteko erreferentziako pertsonak jolas espaziotik ateratzen hasten direnean, funtsezkoa da haurrari denboran zehar egonkorra eta iraunkorra izango den heldu batekin harreman afektiboa eraikitzeak aukera eskaintzea. Harreman hori, arreta pertsonalerako eguneroko jardueretan egiten da nagusiki, eta jarduera horiek, ahalik eta modu individualizatuenean egiten dira. Harreman afektibo horretan, helduak haurraren eskariari bere neurrian erantzuten dio eta haurra egoera bereganatzera bideratzen du.

Bere burua eta inguruaren konzientzia hartzea ahalbidetzearen garrantzia

Denboraren erregularitasuna eta espazioaren egonkortasuna hartzen ditugu kontuan. Horiek dira norberaren konzientzia hartzen errazten duten baldintzetako batzuk. Zaintzaz arduratzen den pertsona heldua, haurrak subjektu aktiboa izan dadin saiatzen da harekin harremanetan jartzen den bakoitzean. Haurra ez da inoiz objektutat hartzen, subjektutat baizik. Honek, helduarengan sortzen duen eraginaz konziente izan behar dugu, nolabait baldintzatu egiten delako gure eskuhartzea, haurraren beharra errespetatu nahi badugu.

Eguneroko arretan, haurrari nor den ulertzen laguntzen zaio; zer gertatzen zaion, zer egiten dioten eta zer egiten duen, nor arduratzen den berataz eta zer gertatuko zaion berehalako orainaldian.

Haurraren ongizatea; fisikoa eta emozionala

Eskolako printzipio garrantzitsuenetarikoa da haurren ongizatea bermatu behar dugula, gure esku dagoen guztian. Jakin badakigu, bizi oreka batek, eragina duela haurraren osasunean eta horregatik, oreka hau eskolan mantentzea ezinbestekoa egiten zaigu.

Kattuka haur eskolako ordutegi eta zerbitzuak

Haur Eskola 7:30etatik 16:00etara zabalik dago eta familia bakoitzak aukeratzeko du ordutegia haien beharren arabera. Gaur egun eskolatzea doakoa da eta jangela tarifak, errentaren arabekoak dira.

Aurrematrikula epea: Martxoaren 24tik apirilak 4ra.

kattuka

haur eskola

info@kattuka.com • www.kattuka.com • 948 567 009



Aurrematrikula
Martxoak 24tik apirilak 4ra

Matrikula
Maiatzak 29tik Ekainak 4ra

9:30-15:00

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

BAKAIKU Erromeria.

San Benito eguneko meza.
18:00etan, *San Benito ermitan.*

ALTSASU Gazte agenda.

Berdintasunean jolasten.
18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean.*

OLATZAGUTIA Irakurketa kluba.

Irakurketa kluba irekia: *Una mujer que espera* liburua Baida Rahal idazlearekin: Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetako bizitzaren kontakizunaren inguruan.
18:00etan, *liburutegian.*

EUSKARAZ**LAKUNTZA Zineforum.**

Ainbo: Amazoniako gerraria filmaren emanaldia. 5 urtetik aurrerako haurrendako.
18:30ean, *liburutegia.*

EUSKARAZ**IHABAR Bakarrizketa.**

M8 *Jaiaren erregina!* Iruzurgilearen *showa*, Garawi Cejotaren bakarrizketa saio feminista.
19:00etan, *herri etxean.*

EUSKARAZ**ETXARRI ARANATZ Antzerkia.**

Miñan Artedrama konpainiaren antzezlanaren emanaldia: Ginean jaiotako Ibrahim Balderen istorioa kontatzen du; egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zeun, eta polizia, bahitzaile, mugalarri eta abarrekin gurutzatu zen zeharkaldian. Ibrahim Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua eta Artedramak antzerkira egokitua. Sarrerak: 6 euro.
19:00etan, *kultur etxean.*

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Un completo desconocido

Igandea 23 19:30
Astelehena 24 19:00

Los aitas

Osteguna 27 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Queer

Igandea 23 17:00
Igandea 23 19:30

La semilla de la higuera sagrada
Osteguna 27 19:00

ALTSASU Elkarretaratzea.

Arrazakeriaren kontrako elkarretaratzea, SOS Arrazakeria elkarteak eta Sakana Harrera Haranak deituta.
19:00etan, *udaletxearen aurrean.*

ALTSASU Batzarra.

Altsasuko Herri Ihauteri Batzordearen balorazio bilera irekia.
19:00etan, *Gure Etxeako lehenengo solairuan.*

ALTSASU Elkarretaratzea.

Palestinarekin elkartzunak deitutako elkarretaratzea.
19:00etan, *udaletxearen aurrean.*

LAKUNTZA Kontzertua.

Sin perdon taldearen kontzertua.
20:00etan, *Sorginak taberna.*

BAKAIKU Bertso afaria.

Bertso afaria Ekain Alegre eta Maite Sarasola bertsolariekin.
21:30ean, *elkartean.*

ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

The Lio, Zakar, The Clayton eta Uda taldeen kontzertuak, EGAK antolatuta. Sarrerak: 8 euro (Xapateron).
22:00etan, *gaztetxean.*

LARUNBATA 22

LAKUNTZA Mendi irteera.

Zabalarte elkarteak antolatutako mendi irteera: Ollarango itzulia.
08:00etan, *plazatik.*

Etxarri Aranatz Kafe tertulia.

Señorak eta plazera. Perimenopausia, beste ikuspegi bat Iriakaz bizi sexologia faministako Edurne Mendizabalekin. Emakumeen Nazioarteko egunaren harira Sakanako Mankomunitateak antolatutako programaren barruan. Izena ematea: *berdintasuna@sakana-mank.eus*.
10:30etik 13:00etara, *kultur etxean.*

ALTSASU Gazte agenda.

Salting Iruñea-ra irteera.
13:15etik 17:15era, *Aita Barandiaraneko bus geltokia.*

ALTSASU Bertso saioa.

Gaztetxeak bertsotan egitasmoaren kanporaketa saioa.
Gaztetxean.

17:30 Parxis eta pintxazo txapelketa.

20:30 Afaria: hanburgesak (aurretik eskatu).

21:30 Bertso saioa: Aitor Tatiegi eta Suhar Gesalaga; Elixabet Etxandi eta Eukene de los Aires; Haira Aizpurua eta Nahia Etxeberria. Gai jartzailea: Nahia Miguel.

IRURTZUN Antzerkia.

Venecia Mio Cuore Irurtzungo Antzerki Taldearen antzezlanaren emanaldia. Sarrerak agortuta.
19:00etan, *kultur etxean.*


EUSKARAZ**LAKUNTZA Antzerkia.**

Beroa dago... eta gu gara! Pantxika Lamurren antzezlanaren emanaldia: menstruatzen duten pertsonen pairatzen dituzten sintomak eta zientziaren ikuspegitik sufritzen den



ALTSASU Luminiszentek.
Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak, eta erresilientzia historia zenbait Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilararen proiektua. Martxoaren 8aren harira Berdintasun eta Kultura zerbitzuek elkarlanean antolatuta.
Martxoaren 12tik 31ra. *Iortia kultur gunean.*

IRURTZUN Irurtzungo eta inguruko herriak Irurtzungo pintura tailerraren erakusketa.
Martxoan. *Pikuxar taberna.*



OLATZAGUTIA Inmatricular
Javier Etayo Larrainzar 'Tasio' marrazkilarri eta umoregile grafikoaren erakusketa.
Martxoaren 24tik 28ra.
Liburutegian.

abandonoa islatzen eta aldarrikatzen dute umorearen bidez eta maitasun handiarekin. Sarrerak: 3 euro. Emakumeen Nazioarteko egunaren harira Sakanako Mankomunitateak antolatutako programaren barruan, udalak antolatuta.
19:00etan, *kultur etxean.*

ALTSASU Kontzertua.

M8 *Emakumeak munduan* Haize Berriak bandaren kontzertua, Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Altsasuko Berdintasun zerbitzuak antolatutako programaren barruan, bandak antolatuta. Zuzendaria: Jasone Etxebeste Razkin. Sarrerak: bazkideak, 3 euro; orokorra, 5 euro.
19:30ean, *Iortia kultur gunean.*

**LARUNBATA 22****EUSKARAZ****UNANU Euskaraldiaren aurkezpena.**

Denok Bat elkartean.
19:00 ZETAK hau ez da kontzertu bat dokumentalaren emanaldia.
21:30 Afaria.

LARUNBATA 25**IRURTZUN Batzarra.**

Irurtzungo Euskaraldiaren batzordearen bilera irekia.
19:00etan, *Pikuxar elkartean*

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Rosa Senar Senar

'Roxita'

Tomas Lizarraga Galarzaren alarguna
2025eko martxoaren 16an hil zen, 93 urte zituela



TXINTXO TA TXURRUN

Maite zaitugu

**Zure bilobak: Amaia eta Imanol, Oiana eta Javi, Oier eta Alvaro, Unai, Ailetz, Uxue, Nastia;
eta birbilobak: Amets, Elur, Mare.**

Dorraon, 2025eko martxoaren 16an.

ESKELA

Sandra Karasatorre Nagore



Gure sustriak ta ardatza, gure bihotza ta zainak, gure bidea...

Adiorik ez, gero arte baizik.
Asko maite zaitugu.

Etxekoak

ESKELA



Ramón Carlos Arza Lecea

Iruñean hil zen 2025eko martxoaren 12an

Familia guztiaren izenean, eskerrik zintzoenak egun zailetan babesa eman eta bere bizitzan bidelagun izan zareten guztioi.

Altsasun, 2025eko martxoaren 21ean

OROIGARRIA



Iñaki Olmos Goikoetxea

I.urteurrena

Ahazten ez dena ez da sekula hilko

Zure kuadrilla

OROIGARRIA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea

VIII.urteurrena

Urteak pasa arren, faltan botatzen zaitugu.

Etxekoak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskolak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Danel Etxeberria Tobar**, martxoaren 11n Altsasun.

HERIOTZAK

- **Ramon Carlos Arza Lecea**, martxoaren 12ean Altsasun.
- **Sandra Karasatorre Nagore**, martxoaren 15ean Etxarri Aranatzen.
- **Rosa Senar Senar**, martxoaren 16an Dorraon.

GUAIXEN ARGITARATZEA NAHI BADUZU:

JAIOTZEN, EZKONTZEN ETA HERIOTZEN BERRI EMATEKO
DEITU 948 564 275, IDATZI ADMIN@GUAIXE.EUS-ERA EDOTA
WHATSAPP BIDEZ 618 882 675 ZENBAKIRA IDATZ IEZAGUZU
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

EMAKUME PREFERENTEA

20. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Gazte Berriak 1-0

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 48

2 Gazte Berriak 42

HURRENGOA

MARTXOAK 23, LARUNBATA

19:00 Idioia - Altsasu (Oteitza, Iturbixpia)

Altsasu, hirugarren mailara

Bi jardunaldiren faltan Altsasuk liga irabazi du eta hirugarren mailara igo da.

GIZON ERREGIONALA

24. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Rotxapea B 4-0

Etxarri Aranatz - Berriozar 7-1

Kirol Sport - Lagun Artea 0-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Altsasu 70

3 Etxarri Aranatz 52

7 Lagun Artea 39

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 22, LARUNBATA

18:30 Lagun A. - Beti Kozkor B (Zelai Bern)

18:45 Asdeforren - Etxarri (Amigo)

MARTXOAK 23, IGANDEA

19:00 Amaya - Altsasu (Amaya)

Altsasu, partidarik galdu gabe

Liderrak bere horretan jarraitzen du. Rotxapea B-ren kontra garaipen sendoa lortu zuen, eta Amayaren kontra bide beretik jarraitu nahi du.

Etxarri Aranatz, sendo eta zuzen

Berriozarren kontra gol festa ederra ospatu eta gero, Asdeforren kontra jokoan dauden beste hiru puntuak ekarri nahi ditu Etxarrik.

Lagun Arteak Beti Kozkor hartuko du

Lagun Arteak puntu bat lortu zuen Kirol Sport aerio zuzenarekin. Lekunberriko taldearen kontra puntuatu nahi du baita ere.

ARETO FUTBOLA Xotaren lehen garaipena igoera fasean

Aralar Mendik Cintruenigoren kontra galdu zuen. Asteburuan ez du jardunaldirik. Lehen autonomikoan Arbizuk jarraitzen du lider (Unibersidad 4-2 irabazi) eta Altsasuk bigarren (Gazte Berriaki 0-5 irabazi). Arbizuk Ribera de Navarra du aurkari Tuteran, larunbatean, 12:30ean; Altsasuk Anaitasuna hartuko du larunbatean, 16:00etan, Zelandin. Emakumeen lehen seniorreko igoera fasean Cintruenigori 0-1 irabazi zion Xotak. Bart Mendialdearekin jokatu zuen.



Finalistek eta txapeldunek erretiroa hartuko duen Egur Sporteko Luis Mari Bengoarekin argazkia atera zuten. AZPETIAGUKA

Jon Erdoziaren eta Oier Mitxelenaren txapelak

AIZKORA Lehenak 23 urtez azpiko Banakako Txapelketa irabazi zuen, eta bigarrenak 19 urtez azpikoa. Gazteen mailako bi txapeldunen arteko lehia Erdozia gailendu zitzaion Mitxelenari. Izarraitzek zortzi final hartu zituen guztira

Azpeitiko Izarraitz pilotalekuak Urrezko Aizkolarien eta Harri Jasotzaileen final handiak hartu zituen igandean. Ia mila herri kirol zale bildu ziren finalak jarraitzera, giro ederrean. Tartean, sakandarrak lehiatu ziren.

Gazteen mailako aizkora, lehenik eta behin 19 urtez azpiko Banakako Urrezko Aizkolarit Txapelketa jokatu zen. Hiru fi-

nalisten artean bi sakandarrak ziren, Oier Mitxelena altsasuarra eta Aitor Saralegi irurtzundarra. Haiekin batera Kimetz Alzola lehiatu zen. Bi kanaerdiko erdibitzen azkarrena Oier Mitxelena izan zen (4:00), Kimetz Alzolarekin (4:18) eta Aitor Saralegiren (5:02) aurretik.

23 urtez Banakako Urrezko Aizkolarit Txapelketako finalean

Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide lehengusu etxarriarrak eta Jokin Larrieta lehiatu ziren. Jon Erdoziak joan zen urteko txapela berri zuen (3:43), erraz, Jokin Larrietaren (4:07) eta Aritz Oiarbideren (4:16) aurretik.

Gazteen txapeldunen bukaerako lehia, Jon Erdozia (4:23) Oier Mitxelenari (4:36) gailendu zitzaion, lehia estuan.



Sakandarrak Arangurenen. DANTZALEKU

DUATLOIA Arangurenen ondoren, 26. Arbizuko Duatloia ate joka

Igandean Arangurengo Duatloia jokatu zen, Nafarroako Sprint Txapelketa. Sakandar ugariak parte hartu zuten bertan. Top20a kontuan hartuta, Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate seigarren sailkatu zen, eta Mikel Arrizabalaga taldeki-dea hogeigarren. Horretaz gain, Ruben Garcia 36. iritsi zen, Juan Luis Maiza 41., Jose Ignacio Mikeo (Hiruki) 58. Egun bateko lizentziarekin zenbait sakandarrek parte hartu zuten baita ere.

Bestalde, 26. Arbizuko Duatloirako izena ematea zabalik dago. Interesatuak martxoaren 24a dute azken eguna, proba 29an jokatu baita. Zirkuitu klasiko, herrikoia, erreleboak eta para-duatloia aukeratu daitezke.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Arbizu, Igoa eta Larraza, selekzioan

PILOTA Nafarroako Euskal Pilota Federazioak aurkeztutako Nafarroako pilota eta erreminta selekzioan hiru sakandar daude: Aaron Arbizu eta Iosu Igoa pilotari etxarriarrak, biak Irurtzun klubekoak, eta Gure Pilotako Maialen Larraza palista etxarriarra. Irurtzun klubeko Salaberria anaiak, Endika Santesteban eta Javier Cuairán pilotariak daude ere selekzioan.

Nazioarteko Pilota Federazioak Euskadiko Pilota Federazioaren ofizialtasuna onartu eta gero sortu den hika mikan, Nafarroako Pilota Federazioko presidente Andrea Lusarretak Euskadiko federazioaren jarrera legitimoa aitortu du. Nafarroako selekzioa GABNI txapelketan murgilduta dago, normaltasunez. Errioxa kanpoan gelditu da, gatazka dela eta.

Udal kirol kudeaketari buruzko ikastaroa asteartean Altsasun

Nafarroako Udaletako Kirol Elkarte Teknikoak (NKT) Udal Kirol Kudeaketari Buruzko III. ATD-NKT Jardunaldiak antolatu ditu martxoaren 25ean, asteartea, 9:00etatik 16:00etara Iortia Kultur Gunean. Kirol teknikariei eta interesa duten orori zuzendutako ekimena da.

Javier Ollo Altsasuko alkateak, Jorge Agirre Nafarroako Kirol

Institutuko zuzendariak eta Daniel Martinez ATEDENA-NAKITELE-eko presidenteak egindako harreraren ondoren, kirolari lotutako makina bat hitzaldi egongo dira. Tartean, Sara Salazar Altsasuko kirol teknikariak Altsasuko kirol eta osasun programari buruzko azalpenak emango ditu. "Neska eta kirola", kirol zerbitzuen automatizazioa... denetarik gaiak aztertuko dituzte. Azkenik, Altsasuko udal kirol instalazioetara bisita egingo da eta kudeaketa ezagutu.



ALTSASU KIROL ELKARTEA

Altsasu, hirugarren mailara

FUTBOLA Bi jardunaldiren faltan, emakumezkoen preferente mailako Altsasuk liga irabaztea eta hirugarren mailara igotzea lortu du. "Igoera historikoa da. Denboraldi osoan egindako ahalegina, dedikazioa eta lana saritzen du honek. Klubetik talde osoa, teknikariak eta zaleak zoriandu nahi ditugu, euren babesagatik" azaldu du Altsasu Kirol Elkarteak.



DANENA TXIRRINDULARITZA ESKOLA

Luca Martinezen lehen podiuma

TXIRRINDULARITZA Igandean junior mailako XXXIX. Udaberri Saria jokatu zen Altsasun, Burundak antolatutakoa. Tamalez, aurten Burunda eta Aralar klubek ezin izan dute junior talderik atera, txirrindulari faltagatik. Horrela, Luca Martinez lakuntzarrak Tolosa Danena taldearekin debutatu du. Bigarrena izan zen Altsasuko esprintean, eta mendiko saria jaso zuen.

"Rallysprinterako autoa alokatu dugu; oraindik ilusioa badugu"

JAVIER GOIKOETXEA ORAA PILOTUA ETA KOPILOTUA

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsport eskuderiako kide eta kopilotu olaztiarrak Ford Fiesta Rally 4 autoarekin pilotu gisa parte hartuko du Olaztiko Rallysprinteran

Maidar Betelu Ganboa OLATZAGUTIA 2023an antolatu zen azken Olaztiko Rallysprinteran. Iazko hutsu-nearen ondoren, atzera ere bueltan dago. Javier Goikoetxea Oraa olaztiarra aspaldiko ezaguna da automobilismoan. Sakana Motorsport eskuderiako kidea da, kopilotu ezagun eta preziatua eta, tarteka, pilotua. Hirurak batean. "Bizitza oso bat mundu honetan sartuta".

Olaztiko Rallysprinteraren seigarren edizioa jokatu da martxoaren 29an. Proba berezia da, herria eta mendia lotzen dituelako.

Bai. Gutxi gorabehera urteroko planteamendu bera izango da, inguru berdinean. Gaur, martxoak 21, emango dugu aurtengo ibilbide zehatzaren berri.

Zergatik mantentzen duzue ibilbidearen behin betiko trazatua ez-kutuan ibilbidearen errekonozimendu egunak iritsi arte? Taldeei aparteko abantailarik ez emateko?

Hori, batetik. Bestetik, parte hartzaileak lehenagotik zirkuitua ezagutzera ez hurbiltzeko. Taldeak hasieratik tramua probatzen etortzen badira, bizilagunak eta herriko jendea deseroso sentitu daitezke, autoak etengabe pasatzen ibiltzen badira. Beraz, proba jokatu baino aste bat lehenagora arte itzaroten dugu. Taldeek martxoaren 22an eta 23an egin ahalko dute ibilbidearen errekonozimendua.

Izena ematea gaur despeditzen da. Talde asko espero dituzue?

Talde parte hartzaileen kopurua 60ra mugatuta dago, eta 50 edo 60 horietatik oso gertu egongo gara espero dugu.

Pilotu eta kopilotu sakandarrak egongo dira tartean.

Jakina! Hemen inguruan zaletasun handia dugu. Altsasuko gidari batzuk daude izena emanda, Olaztiko batzuk ere ibiliko gara...

Beti bezala, sakandarrek ez dute huts egingo. Horregatik Sakana Saria ematen dugu, Sakana talde azkarrenak jasotzen duena. Horretaz gain, scratch sariak banatuko dira, hau da, sailkapen orokorreko sariak, kategoria bakoitzeko sariak eta junior mailako sariak.

Pilotu eta kopilotu zaren aldetik, nola definituko zenuke proba?

Denetarik du. Hasierako eremuan zonalde oso mantsoa eta estua, herriko kaleetan zehar jokatzeko dena, bihurtzeko oso segidan daudelako. Behin Urbasarantz ateratzen denean, ibilbidea azkartzen joaten da; Urbasan denetarik dago: bihurtzeko luzeak, bihurtzeko motzak, azkarragoak, motelagoak... Nik esango nuke, duen luzerarako, denetarik duen eremua dela.

"OLAZTIKO RALLYSPRINTERAK DENETATIK DU: EREMU MANTSOAK, ETA OSO AZKARRAK"

Eta ikusteko polita.

Bai, ikusteko oso polita da, eta gerturatzeke erraza. Lasterketa herrian bertan ikus dezakezu, eta tarte azkarragoak edo irekiagoak ikusi nahi badituzu, Urbasa aldera hurbiltzearekin nahiko.

Azken egun hauek lan handikoak izango dira: zirkuitua markatu, itxi, asistentzia gunea prestatu...

Aurten aldaketa nabarmena du probak: lehenengo aldia da parke itxia areto futbol pistan egongo ez dena. Parke itxia herrira gerturatuko dugu, San Miguel plazara eta inguruetara. Bertan egingo ditugu autoen egiaztapenak eta bertan egongo da parke itxia. Ingurune polita da, eta aldaketaren bat egiteagatik hartu dugu erabakia. Horrek dokumentazioari begira aldaketa batzuk egitea ekarri du, baina, horretaz gain, antolatzen ditugun lasterketei erritmoa hartuta diegu. Bakoitzak badaki, gutxi gorabehera, zer lan egin behar duen lasterketa aurretik. Astero elkartzen gara egin beharrekoak lotzeko, eta modu ia mekanikoan egiten ditugu. Dena den, egia da azken egunak, batez ere aurreko astea, mugimendu dezentekoa izaten dela.

Olaztiko Rallysprinteran 8:00etan hasiko dira autoen egiaztapenak. Lasterketari dagokionez, lehendabiziko autoa 12:30ean abiatuko da irteera gunetik, eta gero lau txandak jokatu dira jarraian. Zenbat irauengo duela aurreikusten duzue?

Pentsatzekoa da txanda edo tramu bakoitza egiteko ordu eta erdi beharko direla, tartean asistentziak daude... Sari ematea 20:00ak aldera izango dela kalkulatu dugu.

Nola bizi dira egun hauek Olaztin? Rallysprintean parte hartuko dutenak autoak prestatzen daude buru belarri. Beti dago lagun edo ezagunen bat autoa prestatu behar duena, eta zaleak bertan elkartzen gara, bajeatan. Herrian giroa sortzen da, probak kanpoko jende asko erakartzen duelako. Giro polita egoten da, eta jendea gogotsu dagoela uste dut.

Egun polita izango da. Sakana Motorsportetik bertara hurbiltzera animatzen duzue, ezta? Bai, noski. Beti berdina eskatzen dugu: batetik, jendeak zonalde altuak edo babestuak aurkitzea lasterketa jarraitzeko. Leku asko daude oso seguruak direnak eta autoak oso ondo ikus daitezkeenak. Bigarrenik, komisarioek eta antolakuntzako jendeak eramaten dituzten jarraibideak errespetatzea. Eta, azkenik, inguru natural batean gaudenez, sortzen dugun zaborra jasotzea eta zaborra biltzeko tokietan utz dezagula.

Ikusleek geroz eta gehiago zaintzen dute ingurunea, duela urte batzuk baino askoz ere gehiago.

Zalantzarik gabe. Hori azpimarratzekoa eta eskertzekoa da. 2011etik, lasterketak antolatzen hasi ginenetik, esfortzu handia egin dugu ingurumena zaintzearen inguruan. Garrantzi handia eman diogu. Bere garaian bezperan errepidea ixten hasteak, bezperatik Urbasara joatera mugatzeak eta halakoek asko lagundu dute horretan. Lan asko egin dugu, eta nolabaiteko egonkortasuna lortu dugu.

Zen eguraldi eskatuko zenioke martxoaren 29ari?

Eguraldi ona, batez ere antolatzailerik gisa pentsatuta. Postu batean komisario egoteko, edo parke itxian, edo proba ondoren hesi guztiak bildu behar ditugunean... lan horiek eguraldi txarrarekin egitea ez da batere eroso.

Ea, beti bezala, Olaztikoa automobilismo festa polit bat izaten den. Hala izan dadila!

"NOIZBEHINKA POLITA DA GIDARIAREN ESPERIENTZIA BIZITZEA: OLAZTIN PILOTU IZANGO NAIZ"



Javier Goikoetxea, eskuinean, Olaztin ariko den Ford Fiesta Rally 4arekin, alboan Aritz Elgarresta kopilotua duela. UTZITAKOIA

GOIKOETXEA, OLAZTIN PILOTU Urte asko daramazu automobilismoan eta oso kopilotu preziatua zara. Hori diote, bederen, pilotuek. Dena den, tarteka pilotu gisa ere aritu izan zara. Aurtengo Olaztiko Rallysprintean nola parte hartuko duzu?

Aurten, buelta dezente eman eta gero, auto bat alokatzea pentsatu dugu lagun batek eta biok, Olaztiko Rallysprintean parte hartzeko. Paper aldaketa egingo dugu: normalean kopilotu gisa ibiltzen naiz, eta Sakana Motorsporteko probatan antolatzaile. Baina noizbehinka polita da autoaren beste eserlekuan jartzea eta esperientzia bizitzea, eta Olaztiko hori planteatu dugu: ni pilotua izango naiz, eta Aritz Elgarresta, oso gertuko lagun azpeitiarra, kopilotua. Urbasako Igoera pare bat aldiz egin dut, eta Euskal Herriko beste igoera batzuetan ere pilotu gisa parte hartu izan dut. Lur gainean ere korritu izan dut rallyren batean, baina asfaltozko rallysprint batean aritzen naizen lehenengo aldia izango da Olaztikoa. Beraz, esperientzia berria. **Pilotu edo kopilotu gisa, nola jartzen zara urdukiago?**

Hau guztia lasaitasunez hartu behar da. Ez nago urduri, disfrutatzeko gogoz baizik. Bereziki autoa probatzeko gogoz. Ford Fiesta Rally 4 kategoriako autoa-

rekin lehiatuko gara, egun Mundialean kategoria txikitetan, laugarren mailan, korritzen duen autoa, Munduko txapelketan junior mailan erabiltzen dena.

Sekulako trastea, beraz. Bai, nahiko berria da.

Lan kontuengatik azkenaldian agian ezin diozu automobilismoari nahi bezain denbora eskaini. Nola izan dira azken denboraldiak?

Espainiako Txapelketa 2016an korritu nuen azken urtez. 2014-2016 haietan Espainiako Txapelketako lasterketa gehienak egin nituen. 2017tik aurrera Espainiako Txapelketako lasterketaren bat egin dut, baina batez ere inguruan jokatzen denetakoren bat, eta, bereziki, gertuko lagunekin. Joan zen urtean lau lasterketa egin nituen, bat Javier Leyunekin, lur gainean, eta oso ondo ibili ginen Skoda autoarekin. Beste bat Lea-Artibain egin nuen, Iñaki Narbaiza beste lagun batekin, eta azkeneko bi lasterketak Andoni Perez de Villarrealarekin egin ditut. Gustura. Motorra gure zaletasuna da, eta lagun artean disfrutatzen dugu.

Zenbat pilotuekin aritu izan zara? Guztira 20-30 pilotu ezberdin ingururekin aritu izan naiz. Uste dut 170 lasterketa inguru egin ditudala, denak zenbatuta, kopilotu eta pilotu gisa egin ditudan.

Hor nonbait. Badira, bai. 20 urte daramatzagu honetan, eta azkar pasatzen da denbora.

Aurtengo denboraldia nola planteatzen duzu?

Azken urteetan bezala, hau da, lagunekin korritzen. Zorteko naiz, auto onak dituzten lagun asko ditudalako, azkar ibiltzen diren horietakoak, eta asko disfrutatzen dugu. Beraz, beraiekin korritzea da plana. Espero dut Euskadiko Txapelketako lasterketa batzuetan ariko garela, eta Errioxako lur gainekoetan. Inguru horretan dezente mugitzen gara. Datak gerturatu ahala erabakiko dugu. Pentsatzen dut Lea-Artibai Rallya Iñaki Nar-

baizarekin egingo dudala, maizta hasieran. Andonirekin ere bakarren bat, eta gero etorriko direnak.

Kopilotu zaren aldetik lan egiteko moduan teknologia berriek eragina izan dute edo orain arte bezala lan egiten duzue?

Zentzu horretan ez da eboluzio handirik egon. Koaderno bat eta arkatza bezain sistema fidagarria zaila da aurkitzen, eta betiko moduan jarraitzen dugu. Apunteak nola hartu pilotuaren eta kopilotuaren arteko harremanean oinarritzen da, eta gero, hizkuntza horretan. Beraz, ñabardura edo matiz asko daude. Gainera, pilotu bakoitzak bere maniak dauzka, bere berezitasunak. Errepidea asko definitzen saiatzen dira, baina irizpidea ere ez da guztiz berdina izaten; horrek notetan jasotzen duguna asko baldintzatu eta aldatzen du.

Zure apunteak oso preziatuak izango dira. Eskatzen al dizkizute?

(Kar-kar) Apunteak, askotan, pilotuaren erabakia dira. Hau da, notak hartzerakoan kopilotuek gure gomendioak eta ikuspuntua eman ditzakegu, edo sisteman proposamen batzuk ere egin, baina azkenean pilotuaren erabakia da errepidea nola definitu eta zer apuntatu.

Olaztin kasu egingo diozu zure kopilotuari, Aritz Elgarrestari.

Kopilotuari kasu egin behar zaio. Kopilotuak ez du bakarrik errepidea definitzen, lasterketaren erritmoa pixka bat markatzen du baita ere. Beraz, garrantzitsua da pilotuarekin ondo elkar ulertzea, bat etortzea.

Olaztin lehiatzeko gogotsu zaude?

Bai, oraindik ilusioa mantentzen dugu. Asteburuan antolakuntzak zehaztutako ibilbidearen errekonozimendu egunak dira, eta bertan egongo gara, notak hartzeko.

Aukera
EKINOTERAPIA
 Behar bereziak dituzten pertsonentzat (TDAH, TEA, ikasketa zailtasunak, arazo emozionalak...)
 GAIKAK, ASTEAN ZEHAR
ESPERIENTZIAK ZALDIEKIN
 • Haur-taldekentzat
 • Familientzat
 • Helduentzako ongizate saiokak (banakakoa/taldea)
 Animatu eta erreserba egite
 Intza - Araitz Bailara (Nafarroa)
 639 37 06 45
 equinoaukera@gmail.com

EgurRRE
 KALITATEZKO EGURRA
 eta pellets
ETXEKO ATERAINO
 662 11 77 45

Sakana Patinek goitik hasi du irristaketa denboraldia

IRRISTAKETA Liga Nazionaleko Gijoneko lehen jardunaldian Noa Floresek, Aiora Resanok, Nahia Zamarronek, Eneritz Fresnedak eta Elaia Agirrek osatutako taldea bigarren sailkatu zen. Nafarroako Pista Txapelketan Aiora Resano Nafarroako txapelduna izan zen

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Sakana Patin irristaketa taldeak ongi hasi du ilbeltzean abiatutako irristaketa denboraldia. Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) txapelketak, Basauriko Indoor Trofeoa, Pirinioen Arteko Trofeoa eta 15 urtez azpiko Liga Nazionaleko kontuan hartuta, urtea hasita sei txapelketetan parte hartu dute Oscar Zamarron Carravillak entrenatzen dituen irristalariak, eta lan ederra egin dute. Esaterako, Pirinioen Arteko trofeoa Pirinioen bi aldeetako irristalariak parte hartzen dute, espainiar eta frantziar estatuetakoez, eta Aiora Resanok hirugarren postua lortu zuen kimuen mailan.

Liga Nazionalea
Martxoaren 8an eta 9an 15 urtez azpiko abiadura irristaketako Liga Nazionaleko lehen jardunaldia jokatu zen Moredan (Gijon), eta bertan lehiatu zen Sakana Patin taldeko boskote bat: Noa Flores, Aiora Resano, Nahia Zamarron, Eneritz Fresneda eta Elaia Agirre. Txapelketa honetan kimuen eta haurren mailako irristalariak parte hartzen dute, eta txapelketa indibiduala izan beharrean, kategoria ezberdinetan irristalariak lortutako emaitzak batu egiten dira. Gijonen hamahiru talderen artean bigarren sailkatu zen Sakana Patin, lehena sailkatu zen Madrilgo CPV Rivas taldetik 8 puntutara. Bi jardunaldi geratzen dira Liga Nazionaleko despeditzeko, maiatzaren 24-25eko Madrilgoa, eta irailaren 13-14ko A Coruña. Beraz, aukera guztiak zabalik ditu Sakana Patin taldeak. "Gijonen bikain pasatu zuten gure irristalariak. Asteburu pasa joan ginen familiariek, eta esperientzia ederra

izan zen guztiendako. Txapelketa honek bizia ematen die, izugarri disfrutatzen dute. Irri-talariak lasterketetan ongi aritu ziren. Bigarrenak gara, eta ate guztiak zabalik ditugu, garaipenarena baita ere" nabarmendu du Oscar Zamarronek.

Sakana Patin taldeko lehiaketa taldeak hemeretzi irristalari ditu 2024/2025 denboraldian, federatutakoak. Guztiak entrenatzen ditu Oscar Zamarronek, eta Altsasuko irristaketa taldean trebatzen diren 42 irristalariak baita ere.

Aurtengoa urte berezia da irristalariendako. Munduko Txapelketa eta Europako Txapelketa jokatu direnez, goitik behera aldatu da egutegia. "Nafarroako Txapelketak eta Espainiako aurreratu dituzte, eta horregatik urte hasieran antolatzen gure Nafarroako Abiadura Irri-taketa Indoor Txapelketa, tartean Olaztiko Erburuan jokatu zen jardunaldia, atzeratu egin behar izan ditugu. Denboraldi bukaeran jokatu da, azaro aldera".

Aiora Resano txapeldun
Txapelketek ez dute etenik. Martxoaren 15ean Nafarroako Pista Txapelketa jokatu zen Amayan. Zamarronek azaldu duenez, lan txukuna egin zuten sakandarrek. Gehienak sailkapenaren erdialdean sailkatu ziren. Aiora Resano kimuen nesken mailan lehiatu zen, 26 irristalari zeuden guztira bere mailan, eta dorro-

"LIGA NAZIONALEAN ATE GUZTIK ZABALIK DITUGU, GARAIPENA BAITA ERE"

OSCAR ZAMARRON

barrak lan ikusgarria egin zuen. "300 m sprintean zilarrezko domina lortu zuen, eta 1.500 m linea eta 3.000 m puntuazioa probetan urrezko domina bana. Beraz, Nafarroako txapelduna dugu". Resano maiatzaren 3an eta 4an Paiportan jkatuko diren Espainiako Txapelketarako sailkatu da.

Hurrengo lasterketa garrantzitsua martxoaren 29an eta 30ean Iruñeko Antoniuttin jokatu den Nafarroako Zirkuitu Txapelketa izango da.



Liga Nazionalean parte hartzen ari den Sakana Patineko boskotea. UTZITAKOA

Pista lortzeko borroka segida du

Sakanan irristaketa pista egiteko eskaria aspaldikoa da. Pistaren beharra nabarmena da. "Sarritan abiadura handia hartzen dugu, eta frontoiak txiki geratzen zaizkigu, arriskutsuak dira. Bestalde, lehiaketak prestatzeko oso motz geratzen dira frontoiak; Liga Nazionalean bigarrenak sailkatu ginenean, askok ez zuten sinistu ere egiten frontoian entrenatzen dugula".

Aurreko denboraldian astean behin Iruñera joaten hasi ziren, pista entrenatzeko. Baina ez da konponbidea. "Ordu bat entrenatzeko arratsalde guztia galdu behar da, gainontzeko eskolaz kanpokoak utzi... Hori, epe luzera, ez da bideragarria". Pista faltak Sakanako irristalariak Iruñeko taldeetara joatea eragiten du. "14-15 urte dituztenean irristalari askok Iruñeko taldeetan jarraitzen dute bere ibilbidea, bertan egoki entrenatu dezaketelako. Urtero tanta jario bat dago, bizpahiru irristalari galtzen ditugu". Sakanan pista izateak egoera guztiz aldatuko



Sakana Patinek pista bi futbol zelaien artean egotea nahiko luke. UTZITAKOA

lukeela dio Zamarronek. "Guretzako salto handia litzateke. Sakana Patin klub garrantzitsua izan zitekeen".

Dantzaleku, aukera
Sakana Patinekoek Burunda Txirindularitzakoekin egin dute bat pista eskatzeko eskarian, txirindulari hasiberriendako ere pista irtenbide bat delako. Altsasuko alkate Javier Ollorekin sarritan bildu dira behar honen inguruan aritzeko. "Lanbide Heziketaren atzealdean dauden

lursail batzuk egoki izan zitezkeela iruditu zitzaigun. Udalak eskaria egin zuen, baina Gobernuak atzera bota zuen, besteak beste lursail horiek Otadia aterpeko aisigunea direlako".

Dantzalekun, futbol zelai zaharra zegoen eremuko alde batean, futbol 7 zelai txikia egin dute. Sakana Patinek eta Burundak ondoan libre geratzen den eremua egoki ikusten dute bertan pista bat egiteko. "Pista lortzeko lanean jarraituko dugu".



Irurtzango antzerki taldeko hainbat kide entsegu batean. UTZITAKOA

Irurtzango antzerki taldean, Venezia gogoan

'Venecia Mio Cuore' antzezlaren emanaldia egingen dute bihar eta etzi, martxoak 22 eta 23, dagoeneko ia sarrera guztiak agortuta daudela. Hemezortzi bat kidek osatzen dute aurten antzerki tailerra, eta antzezlari "eroa" proposatzen dute

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN
"Irudimenezko" Venezia batean sortu edo oinarritu dute Irurtzango Antzerki Taldearen aurtengo antzezlana. "Istoria honetan parte hartzen duten pertsonaiek Venezian pentsatzen dute behin eta berriz", azaldu du Peio Aldaz taldeko kideak. "Bakoitzak bere Venezia" daukala gaineratu du Enara Urrak. Bihar eta etzi, martxoak

22 eta 23a, mustuko dute Venecia Mio Cuore antzezlana; bihar bi saio egingen dituzte, eta 21:00etarako baino ez dira sarrerak gelditzen (Guaixe astekaria ixteko momentuan). Urtero bezala, arrakastatsua izan da antzerki taldearen proposamena. Urrak azaldu duenez, Irurtzunen ohitura handia dago antzerkia ikustera joateko, "eta urtero filpatzen ateratzen

dira; baina, zer ikusi dugu? esaten dute. Hurrengo urtean berriro etortzen dira". Aldaz: "Hartzen zaituzte eta galdetzen dizute: zertaz zihuan antzerkia?".

Irurtzango Antzerki Taldearen zuzendaria eta antzezlaren dramaturgoa Angel Sagues antzerki-gilea da. "Hasten garenean, hasi eta astera edo bi astera, gidoi moduko batzuk ekartzen ditut,

eta horiek abiapuntua dira", azaldu du Aldazek. Aurtengo antzezlana adaptazio bat dela gaineratu du Urrak, "obrak, berez, sei pertsonaia ditu eta gu tailerlean aurten 18 bat gara, beraz, pertsonaia nonbaitetik atera behar izan ditut". Adaptazio horretan taldekideen "grina" sartzen dela esan du antzezleak. Udazkenean hasi ziren lan berria prestatzen, eta aste honetan izan dituzte azken entseguak, asteartetik ostiralera egunero bildu dira. "Egia esan, pixka bat urduri nago". Aldazek azaldu duenez, Venecia Mio Cuore prestatzearen gauzarik zailenetarikoa izan da pertsona "asko" daudenez, ezin izan dutela egun bakar batean denak egon; "zaila da, azkenean besteen feedbacka behar duzulako". Urrarendako paragrafo jakin bat izan da zailena, "ero bihurtzen naiz eta oraindik ez dut guztiz barneratu...".

"Testuak ere baditu bere gauzak". Zuzendariak idazten duena egin behar dutela azaldu du Aldazek, eta taldean urteak daramatzaten arren erronka bat izaten jarraitzen duela gaineratu dute antzezleak. Aldaz aurten Dino da, eroetxetik bere aitarekin atera berri den pertsona androgino bat. S-ak eshe moduan esaten ditu, eta hori asko landu behar izan du. "Adibidez, mundo hitza esan beharrean mundos esaten du". Urraren kasuan prostituta baten papera egiten du, "munduaren kontra joaten da, pasotismo pixka bat du eta beti liskarretan sartuta dago". Urra antzerkia ikasten ari da ere, eta pertsonaia bakoitzak "tik bereziak" dituela ikasi du: "Gorputza jartzeko era eta abar: Nik ez dut azentu jakin bat, eta orduan gorputza jartzeko moduan zentratu naiz; etengabe seduzitzen ari da".

"Normalean Angelek beti komedia puntutxo bat sartzen du",

esan du Aldazek Venecia Mio Cuore antzezlana komedia den galdetuta. Urra: "Azkenean, ez dago obra bat guztiz drama dena edo guztiz komedia dena. Bestela, tragikomedia greko-erromatar bat izango zen eta publiko guztia aterako zen leher eginda". Jendea antzezlana ikustera gonbidatu dute: "Ez gaude ziur ongi aterako den, baina asko gara eta guztien artean saiatzen gara". Taldean hamar urteko neska batetik 70 bat urteko emakume bateko adin tartea dago, "eta hori oso polita da".

Antzerkitik harago

Aurtengo antzezlaren ere atrezzoaren egileak izan dira antzerki taldeko kideak. "Sorpresaz ez da jende guztiak ikusi gaituelako etxetako atarrietan espraiekin margotzen!", esan du Urrak. Hasiera batean margolan bat hutsetik egin behar zuten, "baina talde bat garenez batek esan zuen ekarriko zuela gauza bat eta beste batek bestea. Bakoitzak etxera eraman zuen eta margolanak ekartzen joan gara".

Udazkenean lau antzerki talderekin elkartrukea egin zuten, eta lehenengo aldiz kale antzerkia egin zuten, Irurtzunen ere. "Gernika plazan egin genuen eta oso egun txarra zen: kopa finala zegoen, Iruñean gaixoa ni...". Topaketak "oso aberasgarria" dela esan dute. Urra: "Bazkari erraldoi bat egin genuen eta sari banaketa egon zen, eta sarien artean biok abestu genuen".

ANGEL SAGUES ZUZENDARIAREN LANEK BETI "KOMEDIA PUNTU BAT" DUTE

Emakumeen zenbait istorioa hitzaren eta irudiaren bidez

Martxoaren 31ra arte ikusgai dago 'Luminiszentek' erakusketa, Iortia kultur gunean

ALTSASU
Martxoaren 12an mustu zuten Igone Mariezkurrena kazetariaren eta Irantzu Pastor argazkilaria *Luminiszentek*. Emakumeen aurkako indarkeria ikusiezina eta erresilientzia historia zenbait era-

kusketa. Hilaren amaierara arte ikusgai izanen da Iortia kultur gunean. Altsasuko Udaleko Berritasun zerbitzuak, Kultura zerbitzuarekin batera, antolatuta dute erakusketa, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.

Luminiszentek izeneko liburua du oinarri erakusketa proiektuak. Diskurtso nagusietan lekuri ez duten emakumeen istorioak bilzen ditu; protagonistak bortizkeriazko giroetan bizi edo hazi diren emakumeak dira, hala nola okupazio militar, pobretze, behartutako lekualdatze, genozidio edo asimilazio kulturalerako testuinguruetan. Baita emakumeen eguneroko bizitza baldintzatzen duten edo halako errekonozimendurik ez duten beste indarkeria sotilagoekin korapilatzen dira.



Igone Mariezkurrena eta Irantzu Pastor erakusketaren mustutze egunean. ©EBIL.GUNEA



Haize Berriak bandako kideak Altsasuko inauterietan munduko emakumez mozorrotuta.

Haize Berriak bandak munduko emakumeak gogoan izanen ditu

Urtero bezala, martxoaren 8aren harira emakumezkoiei eskainitako kontzertua emanen du martxoaren 22an

ALTSASU

Sakanako Haize Berriak bandak emakume migratzaileak ardatz hartuta kontzertua emanen du martxoaren 22an, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Hortaz, munduko hainbat lekutatik eta arazoirengatik (kolpe militarrek, lan aukerak, maitasuna eta abar) bailarara iritsi diren emakumeen laguntza izanen du. Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egingako kontzertua da; Emakumeak munduan izenburua du. Kontzerturako sarrera orokorrak 5 eurotan eros daitezke kultur gunearen webgunean edo txarteldegian, eta bandako bazkideek 3 eurotan.

Bandak migratutako emakumei protagonismoa eman nahi die: atzean utzi dituzten ametsak, familiak, lekuak, hemen sortu dituzten ilusioak eta sakandarrei ematen dieten aniztasuna eta aberastasuna ikusarazi nahi du.

Horretarako, emakumeek euren bizitzaren zatitxo bat eskainiko dute, eta bitartean bandak, musikaren bidez, haien jatorrizko lurretara eramanez dute.

Italiako Elena Bazzanella, Tunisiako Rabeb Ridene, Herberetako Ada Kruijer, Myanmarreko Khin Phyu Phyu, Argentinako Analia Troncosa, Uruguaiako Rita Torriko eta Kubako Mayelin Baz izanen dira bandako laguntzaileak Emakumeak munduan kontzertuan, eta Jasone Etxebeste izanen da zuzendaria.

Bandak urteak daramatza Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira emakumezkoiei eskainitako kontzertuak ematen: Mainamikirri ipuinean oinarritutako kontzertua eman zuen 2024an, bandako emakumezko musikariak protagonistak izan ziren 2023an, eta emakumezko konpositoreen obreak kontzertua eman zuten 2022an.

gintza landu zituen, eta denboraren poderioz itzulpengintza, eleberrigintza eta entsegugintzari heldu die ere. *Hitzen libertatea* deitzen da Guaixe Fundazioak, Sakanako Mankomunitatearekin batera, antolatutako solasaldia, eta literaturaren inguruko hainbat jakingarri eta kontu bitxi izanen ditu hizpide. Izaskun Etxeberria idazle altsasuarra izanen da solasaldiaren gidaria. Sarrera libre da, gonbidapenarekin; Guaixe Kideek lehenetsuna izanen dute.

GUAIXE-ren 30. urteurrena, Sarrionandiarekin

Guaixe Fundazioak 30 urte bete ditu, eta ospatzeko Joseba Sarrionandia Altsasura gonbidatu du. Martxoaren 28an, ostirala, izanen da (18:30ean), Iortia kultur gunean. Ondoren, urteurren ospakizuna eta otamena izanen da ere.

Joseba Sarrionandia ibilbide luzeko idazle ezagun eta oparoa da. Hasmenetan poesia eta ipuin-

"Luis Lizarraga harro egoteko moduko pertsonaia da"

JUAN LUIS LARRAZA LAKUNZA IDAZLEA

Bere bigarren eleberria aurkeztuko du martxoaren 26an, Etxarri Aranatzan; Sakanako pertsonaia historiko baten bizitza kontatzen du, errealitatea eta fikzioa uztartuz

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Luis Lizarraga kapitaina 1473-1521. Nafarroako askatasunaren indarra Sakanan deitzen da Juan Luis Larraza idazle etxarriarren bigarren eleberria. Luis Lizarragaren istorioan oinarrituta dago; liburua fikzioa da, baina historialariek emandako informazioarekin osatu du: "Bizitza asmatu dugu, fikzioaz jantzi, eta egitura bat eman". Martxoaren 26an, asteazkena, 19:00etan, Etxarri Aranatzko kultur etxean aurkeztuko du; martxoaren 28an, ostirala, Lizarragabengoan, eta apirilaren 4an eta 9an, Arbizun eta Altsasun, hurrenez hurren. Liburua GK Diseinua eta Komunikazioak maketatu du.

Nola jakin zenuen Luis Lizarragaz?

Nire bizitza pertsonalak zerikusia badu. Betidanik ikastola munduan ibili naiz eta jubilatu aurretiko 16 urteak Zangozako ikastolan eman nituen. Orain dela 24 urte Nafarroako historiari buruzko jardunaldiak antolatzen genituen ikastolan, eta musika jaialdi batekin amaitzen genituen. Orduan, jardunaldi horietan Pedro Esarte baztandarra, Pedro Monteano edota historialari asko pasatu ziren. Oso gogoan dut Pedro Esarte egon zela, garai horretan Nafarroa 1500-1530 liburua kaleratua zuen, eta han agertzen zen Luis Lizarraga; nola bere jabegoa eta bere ondasunak kendu zizkioten. Nire barnean pentsatzen nuen: Liza-

rraga hau nor izango da? Urteak joan dira eta historialari guztien liburuetan begiratzen jarraitu dut, eta Monteanok gaia asko landu du eta bere lanean behin eta berriz agertzen da. Monteanorekin harremanetan jarri nintzen eta hiru urte hauetan artxiboan begiratzen egon naiz. Artxiboan egon ginen bi alditan erreferentzia batekin joan nintzen eta dozena bat papera soka batekin lotuta eman zidaten. Soka hura askatzerakoan ogi apurrak bezala apurtzen zen papera, hain zen zaharra papera. Kontu handiz ulertzen nuena apuntatu nuen, zeren garai hartako erdara ez zen oso ulergarria. Ahal nituen izenak apuntatu nituen: Lizarraga, Olazti, Altsasu, Iturmendi, Etxarri eta Ergoienako izenak agertzen ziren. Handik gutxira lortu genuen Luis Lizarragaren testamendua aurkitzea. Testamendua izenpetua dago 1511ko abuztuaren 15ean, ama birjinaren egunean. Testamendu hori erreferentziatzat hartuta, landua nuen zirriborroari berzentzu bat eman behar izan nion; aldatu behar izan nuen, bertan agertzen ziren datuak lotu zitezen errea-

litatearekin. Beraz, liburuak badu berez egiazkoa den zati handi bat, testamenduan oinarritzen delako. Ulertzekoak zailak ziren puntu asko eta asko jasotzen dira eleberrian. Nobela kutsu emanda, baina egiazkoak izan zitezkeenak testamenduan agertzen direlako.

Beraz, pertsonaia aurretik ezagutzen zenuen?

Bai. Pertsonaia banuen. Informazioa ez zen asko, baina testamendua agertu zenean ate bat ireki zitzaidan. Oso garrantzitsuak dira bi alaba eta seme bat izan zituela. Bi alaben norabidea jakiteak asko lagundu zidan nobelari zentzu bat edo beste emateko. Bestela, hor galdu nintekeen. Horrek bere bizitzaz eta familiaz argibide asko ematen ditu. Kontuan eduki behar da ezkontuta zegoela Ameskoetako Pascuala de Baquedanorekin. Oso interesgarria da; nola ezagutu zuten elkar? Lehen ez zegoen telefonorik eta tartean Urbasa mendia zegoen. Nire nobelek ikuspegi nekazari edo rural pixka bat dute. Idazten diren nobela gehienetan denak dira jauntxoak, jaunak eta ongi jantziak daudenak, eta nolabaiteko bere estatusa mantentzen dutenak. Nire bi nobeletan agertzen diren pertsonaia oso hemengoak dira. Oso herrikoiak. Ez dute handikeriarik. Eskualdea pobrea zen, jateko ere nahiko lan zuten. Koska horretan doa Pascuala de Baquedanoren

"NOBELEK NEKAZAL EDO RURAL IKUSPEGI PIXKA BAT DUTE; PERTSONAIK OSO HERRIKOIAK DIRA"



Juan Luis Larraza Lakunza, Altsasun, bere bigarren eleberriekin.

istorioa. Tartean Lizarra dago, Nafarroako Errege eta erregearen egoitzetako bat zen. Tartean ere Pascuala de Baquedanoren anaia Juan Ramirez de Baquedano dago, Jaime Velaz de Medranoren oso lagun estua zela. Jaime Velaz de Medrano, Juan Ramirez de Baquedano eta Luis de Lizarraga liburua zehar osatzen dute hirukote sendo eta etenik gabekoa. Jasotarrak, Olloki, Ezpeleta, Berako Alzate eta beste asko batzen dira.

Lizarragabengoa eta Etxarri Aranatz tartean kokatzen da.

Kontuan hartu behar da Bernoa liburua idatzi nuenean Luis Lizarragaren pista banuela, orduan, saiatu nintzen bi nobelak lotzen; batez ere bukaera lotzen. Hari bat moztu gabe utzi nuen bigarrenarekin lotu ahal izateko. Toponimiak garrantzi handia izan zuen bai Bernoan bai honetan ere. Azken batean, erdi aroko abizen guztiak edo gehienak toponimiarekin zerikusia dute. Orduan, leize bat omen zegoen eta hortik Leiza-rraga omen dator. Historialariak horrela diote eta nik errespetatu besterik ez dut egin. Luis de Lizarragak Li-

zarragabengoa eta Etxarri jauregiak zituen.

Nor zen Luis Lizarraga?

Nafarroako Erreina defendatu zuen kapitainetako bat izan zen. Hasieratik borroketan ibilitako pertsonaiak ziren. Bere borrokak batez ere 1516 eta, are gehiago, 1521ean Gaztelak Nafarroa erabatekoz bereganatu zuenean eman ziren. Zaharrenak zirenak eta gaztelar erregeari barkamena, parentesi artean, eskatu ez ziotenen artean hauek zeuden; Jaime Velaz de Medrano, Baquedano, Olloki, Jaso eta abar. Kapitain zahar bezala gelditzen ziren.

Zein zen kapitain hauen lana?

Nafarroako erregearen guda-lostearen barruan bakoitza bere gizonekin joaten zen. Velaz de Medranok eramango zituen ez dakit zenbat gizon, besteak ez dakit zenbat... Nik Lizarragarri jarri dizkiodan gizon multzoak ez ziren asko. Burunda, Arañaz

"PERTSONAIA HAUEK BERRESKURATU BEHAR DITUGU; MEMORIA HISTORIKO GARRANTZITSUA DA"

eta Arakilen jende gutxi bizi zen eskualdea zen; orduan, guda handirik ez zen izan. Liburuan aipatzen dut Luis de Lizarragak seguruenik Gipuzkoa aldetik laguntza izan zuela; Goierri aldeko Segura, Lazkao, Ataun eta herrialde horietako jendea izan zuela bere 150 gizoneko taldea izateko. Handiagoak ez ziren.

Ohituraz etsaiak izan direnak, beraz, desmitifikatu dituzu?

Bai. Ikasketak Gipuzkoan egin nituen eta hezkuntza oso ona izan zen, bost urte egin nituen, giro euskalzalea, Lazkaoko beneditarretan. Baina beti sumatzen ziren nafarrekiko bromatxoak eta ukituak. Oraingoan pausu bat eman dut eta uste dut mugak ez zirela geografikoak, baizik eta hizkuntzak sortzen zituena. Seguraski Gipuzkoako herriekin harremana estua zen, eta desmitifikatu nahi izan dut. Euskaldunendako ona da.

Sakana historian jarri duzu?

Ez dago ezer ez. Ez da artxiboetan ere agertzen. Norbaitek aurkitzeko aukera badu, ongi etorriak izan daitezten istorio gehiago. Agertzen da 1521ean eta 1522an Jaime Velaz de Me-

dranok Amaiurko gaztelua defenditzen zuela Gaztelaren esku erori baino lehen ordainketa batzuk egin zitzaizkiela eta hemendik joan ziren gizonetzko. Hor gelditzen da dena. Nik uste alderdi horretatik ez bakarrik Etxarri Aranazko Udalak eta Lizarragabengoako Kontzejuak, baizik eta Sakana osoan, horretan murgilduta egon beharko lukeela. San Martin de Unxeko lagunekin harremanetan geundela erakutsi ziguten duela urte bat jarri zuten Ramirez de Baquedanoren omenezko harria. Guk daukagun lehenengo pertsonaia ospetsua da; duela 500 urtekoa. Pixka bat janda nauka pertsonaiak, ez dut ukatzen, baina uste dut oso erreferente historiko garrantzitsua dela. Irabazleek kontaktzen dute historia. Galtzaileok ez genituen

baliabiderik eta hor gelditu dira. Artxiboetan agertzen diren gauzak dira kendu zizkiguten gauzak edo kondenatuta zeudelako. Erreferentzia txiki horietatik jaso dugu historia. Horregatik guztiagatik dei bat egiten diet udalei: pertsonaia hauek berreskuratu behar ditugu. Hau ere memoria historikoa da; oso garrantzitsua. Harro egoteko moduko pertsonaiak dira.

Eleberri bat da, benetako datuak fikzioarekin tartekatuta. Nola egin duzu?

Argi izan behar da historia oso gauza zehatza dela, egiazkoa izan behar du, ez dago gezurretarako tarterik. Errealia da. Ni ez naiz historialaria. Historiako pasarte batzuk hartu, forma eman, eta gertakizunak bata bestarekin lotu ditut historian agertzen den pertsonaia horri bizitza emanez.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Arrazakeriaren aurkako nazioarteko eguna



"Karta jokorik politena da, alde handiz"

Euskal Herriko Mus Txapelketako Iturmendiko kanporaketa irabazi eta Nafarroako finalerako sailkatu dira beste 180 bikoterekin batera. Larunbatean Iruñean ariko dira jokatzeko Arantxa Jungitu Aseginolaza eta Miren Galartza Martin

A.A.I. ITURMENDI

1 Zergatik musa?

Miren. Iturmendin beti jokatu izan da Aritzaga elkarte txapelketa gabonen aurretik. Aitona, aita eta osaba horretan jolasten ikusten zenituen. Niri aitona erakutsi zidan. Gogoz hartu nuen eta beti jokatzera animatu naiz.

Arantxa. Ez dut gogoratzen noiz ikasi nuen. Aspaldi izan zen, osaba eta izebarekin, gustuko izan nuen.

2 Zerk egiten du musa erakargarri?

A. Karta jokorik politena da, alde handiz. Arauak daude, baina nahi duzun moduan joka dezakezu.

M. Gezurretan ibiltzeko xarma hori du. Lau erregetara jokatzeko dugu. Guk zortzi erregetara jokatzeko ikasi genuen, herriko

ohitura hori zen. Ohitura aldatu zen, eta aldaketan ongi moldatu ginen.

A. Zortzira mundu guztiak kartak ditu, eta gezur gutxiago dago. Musarengauza polita da gezurrik esan ditzakezula, eta laurekin aukera gehiago daude horretarako.

3 Mus bikotea noiztik?

A. Betidanik. Gure lehen saria 2003koa da. Beharbada 25 urte.

M. Gaztetxo hasi ginen. Elkarri aurpegira begiratuta, gutxi gorabehera, badakigu bakoitzak zer duen, karta onak edo ezer ez dugun. Keinurik egin gabe partida nola joanen den badakigu.

4 Maiz jokatzeko duzue?

A. Ez. Lehen gehiago eta, gehienbat, txapelketetan. Bikote bat prest badago, gu beti gauder jokatzeko prest. Baina, egia

esan, ez dugu halako bikoterik opatzen.

M. Amatasunak elkartzeko denbora murriztu digu, areago jokatzeko. Behintzat urtean behin jokatzeko dugu, zen txapelketa hau ez dugu sekula galtzen. Elkartearekin jokatzeko dugu. Afaldu ondoren beste bikoterik bat egon daiteke. Edo txapelketetan.

A. Beti gabiltza jokatzeko beste bikote baten bila.

M. Gure kontra jokatzeko beldur dira!

5 Karta txarrak sartzean, zer?

A. Disimulatu eta karta onak izanen bazenitu bezala jokatu.

M. Beste bikotearen zain egon, zer lortu edo ez jakiteko.

6 Karta onek eskutan "erretzen" dute?

M. Karta onak ditudanean Arantxak jokatzeko du, eta alderantziz.

A. Beste bikotea despistatzeko.



Arantxa eta Miren, Aitzkozar elkarte txapelkunak. UTZITAKOIA

7 Aldea dago lagunartekotik lehiaketara?

A. Lagunartekoan ez dago tentsio hori. Txapelketetan beti urduritasuna... beste modu batera jokatzeko da.

8 Beste bikoteari erreparatu diozue?

A. Tranpak harrapatzen saiatzen gara, lehenengo, nola jokatzeko duten begiratu, nondik nora doazen. Eta horren arabera modu batera edo bestera jokatzeko dugu. Batzuek gehiago nahi izaten dute, beste batzuek ez. Edo mozterako orduan kontu handiagoa edo gutxiago dute.

M. Edo pasatzen eta pasatzen utzi eta hordago batekin izorratzen ditugu.

9 Keinuk egin zileak zarete?

A. Gustuko dugu, baina beti ez dute uzten, bikote batzuek ez dakizkitelako.

M. Keinuk bata besteari kartekin jokatzeko aukera ematen digu. Eta ziria sartzen saiatzen gara.

A. Hori da jokoaren grazia. Kartarik gabe irabazi eta kartak erakustean...

10 Finalerako nola prestatu zarete?

A. Iturmendiko kanporaketakoa izan zen azken partida. Irabazi eta saria Iruñerako txartela lortzea izan zen.

M. Entrenatzeko norbait gurekin jokatzeko prest badago, abisa dezala.

A. Iruñeko kanporaketara askotan joan gara eta beti han gelditu gara. Beste maila bat dago. Zortea eta kartak izan behar dituzu. Beste errondara pasatzeko lau partida irabazi behar dituzu. Zaila izaten da. Baina ea aurten hala den.

M. Dagoen mailarekin, kartarik ez baduzu ez duzu zer eginik.

A. Lasai joanen gara.

11 Zein asmorekin zoazte finalerara?

A. Ziur ongi pasatzen dugula.

M. Hainbestetan joan gara, kanporaketa pasatzeko gogoz goazela.

